

# GUaiXE.eus



**Zubieta eskuz binakako finalean**



Kirolak >> 11

**Etxarriko osasun zerbitzu guztiak euskaraz jasotzeko eskubidea aldarrikatzeko kanpaina martxan**



Sakanerria >> 7



## Kontsumo arduratsuaren Ama-Lur azoka Etxarrin

>>3

**Astlehenean Sakanako Plan Estrategikoaren jarraipen bilera**

>>5

**Internazionalistendako batzarrerako deia**

>>8

**Liburu Egunak ekitaldiak dakartza Altsasura**

>>15

**Etxarriko Abesbatza Ejea de los Caballerosen txapeldun**

>>15



## Preso eta iheslarien aldeko sarea zabaltzera

>>8



**Burundar Txistularien eta lagunen kontzertua**

>>15



**Master mailako txapelaren hitzordua etzi Arbizon**

>>12



**Agur, Agur! Castillo Suarez azken liburua**

>>14

apirilak 19

ARBIZUko

LANDARE

ETA LORE

AZOKA

2015



# ZORION agurrak

Argazkiak emateko lekuak: • Altsasu: Foruen Plaza 23-1 • zorion@guaixe.net  
• Ordainketa, Guaixeren bulegoan edo ondoko kontu zenbakian egin daiteke:  
3035 0018 47 0181012564

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!

Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!



- Leihoen, ateen eta kontraleihoen fabrikazio eta muntaketa
- Balkoien eta terrazaren itxitura
- Kolore guztietako mallorkinak
- Konpromezurik gabeko aurrekontua

info@dekovenavarra.com • www.dekovenavarra.com

Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia • ALTSASU • Tel./Faxa: 948 468 360 • Telefono mugikorra: 690 641 860



**Iker Begiristain**  
ZORIONAK polita!  
Muxu asko abuelo eta abuelaren partez.



**Miren Mintegi Claver**  
Gure etxeko neskatari, 10 dantza guretzat!! 10 urte bete dituzulako, 10 muxu eta 10 besarkada zuretzat!! ZORIONAK!! Familia osoaren partez.



**Udane eta Iraide**  
ZORIONAK bikote! Familia osoaren partez eta beti bezain jator eta alai segi!



**Siets Goikoetxea**  
ZORIONAK kokkola! Iritsi da horren beste itxaron duzun eguna! Primeran pasatzea espero dugu eta mila kilo txokolatzeko muxu! Ihart, Aitaxo eta Amatxo.



**Siets Goikoetxea**  
ZORIONAK Siets Altsasuko familiaren partez!

## Bazkideek deskontua

Bakarra: **4,00€**

Bazkideak: **3,50€**

## apiribilak

# 17-23

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: [gutunak@guaixe.net](mailto:gutunak@guaixe.net)

### Musika

**Pipes and Pints, The Guilty Brigade eta B.C. Bombs.** Apirilaren 17an, ostiralean, 23:00etan Altsasuko Gaztetxean.

**Burundarrak & friends.** Apirilaren 18an, larunbatean, 20:00etan Altsasuko lortia kultur gunean.  
**Burundar Txistulariak.**

### Mendi irteerak

**Olatzagutia-Arantzazu.** Apirilaren 19an, igandean, 7:00etan Olatzagutiatik. **Sakanako Mendizaleak.**

**Euskal Herriko erdigunea.** Apirilaren 19an, igandean, hainbat herritatik. **Gure Esku Dago.**

### Bizikleta irteerak

**Altsasu-Madotz-Altsasu.** Apirilaren 18an, larunbatean, 9:30ean Altsasuko kultur gune paretik. 90 km. **Zikloturista taldea.**

**San Benito ermita.** Apirilaren 19an, domekan, 8:30ean Altsasuko Zumalakarregi plazatik eta 9:20ean Bioitza kanpinean. **Barranka txirindulari taldeko mendi bizikleta taldea.** 60 km.

### Dokumentalak

**Jostunak.** Apirilaren 17an, ostiralean, 19:00etan Iturmendiko auzo-gelan. Erabakiak ehuntzen kanpainaren aurkezpena. **Gure Esku Dago.**

### Erakusketak

**Igarotako udazkenak.** Apirilaren 30era arte, astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domeketan 19:00etatik 21:00etara Altsasuko lortia kultur gunean. **Kiki Asensio eta Adela Sanchez.**

**Gure Esku Dagoren giza katea.** Apirilaren 6tik 19ra Altsasuko Gure Etxea eraikinean.

### Hitzaldiak

**TTIP-ik ez.** Apirilaren 17an, ostiralean, 19:00etan Altsasuko lortia kultur gunean. **Hizlaria: Xabi Lasa. Erregimena Kanpora eta Askapena.**

### Bertsolaritza

**Aritz Saragueta eta Oier Lakuntza.** Apirilaren 18an, larunbatean, 21:30ean Urdiaingo Kaluxa tabernan. **Bertsolaritza.**

### Zinema

**El francotirador.** Apirilaren 17an, ostiralean, 22:00etan eta apirilaren 19an, domekan, 20:10ean Altsasuko lortia kultur gunean.

**Los caballeros del zodiaco.** Apirilaren 19an, domekan, 17:00etan Altsasuko lortia kultur gunean.

**Samba.** Apirilaren 23an, ostegunetan, 19:00etan Altsasuko lortia kultur gunean.

Ikuslearen eguna, 3 euro.



### Literatura

**Agur, Agur!** Apirilaren 22an, asteazkenean, 19:30ean Altsasuko lortia kultur gunean. **Castillo Suarez eta Morkotsen liburu aurkezpena.**

**Todo llevará su nombre.** Apirilaren 23an, ostegunetan, 19:00an Altsasuko lortia kultur gunean. **Fermin Goñiren liburu aurkezpena.**

### Tailerrak

**Sortu zure kamixeta.** Apirilaren 18, larunbatean, 17:00etatik aurrera Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean.

**Haurrendako poesia tailerra.** Apirilaren 20an, astelehenean, 17:30etan Altsasuko liburategian. Aurretik izena eman.

**Artistaren liburua.** Apirilaren 23an, ostegunetan, 17:00etatik 19:00etara Irurtzungo liburategian. 6-12 urtekoendako. **Ana Rosa Sanchez.**

### Bestelakoak

**Zer dakigu drogei buruz?** Apirilaren 17an, ostiralean, 17:00etatik aurrera Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean.

**Urdiaingo eliza.** Apirilaren 17an, ostiralean, 20:00etan Urdiaingo herriaren etxeko auzoan. **Migel Angel Sagasetaren liburua aurkezpena.**

**Garagardo festa.** Apirilaren 16tik 19ra, ostegunetik igandera, 18:00etatik aurrera Etxarri Aranatzan.

**Bingo-afaria.** Apirilaren 17an, ostiralean, 20:30ean Olatzagutian. Lehenik poteoa. **Aritu euskara taldea.**

**Arbizuko landare eta lore azoka.** Apirilaren 19an, igandean, 10:00etatik 14:00etara Arbizuko plazan.

**Amalur azoka.** Apirilaren 19an, igandean, 10:00etatik aurrera Etxarri Aranatzeko plazan. **Belardi.**

**Robotika erakustaldia.** Apirilaren 21ean, asteartean, 15:00etan Urdiaingo eskolan. **Eskolako 6. mailako**

ikasleak.

**Parkinson jardunaldiak.** Apirilaren 22an, asteazkenean, 10:00etatik 13:00etara Altsasuko azokan eta 17:30ean Altsasuko osasun etxean mahai-ingurua. **Nafarroako Parkinson Elkarteak.**

### Deialdiak

**Hipotekek kaltetutako Plataformak.** Apirilaren 17an, ostiralean, 19:00etan Altsasuko Gure Etxeko lehen solairuko 1. gelan, bilera.

**Euskal Presoak Euskal Herrira!** Apirilaren 17an, ostiralean, 20:00etan Lakuntzako, Arbizuko eta Etxarri Aranatzeko plazetan, elkarretaratzeak.

**Donbassekin elkartasun eguna.** Apirilaren 17an, ostiralean, 21:00etatik aurrera Altsasun.

**Presoekin elkartasun eguna.** Apirilaren 18an, larunbatean, 10:00etatik aurrera Etxarri Aranatzan. **Sare.**

**Internazionalisten batzar irekia.** Larunbatean, 11:00etan, Arbizuko udaletxean.

**Orain Euskal Herrira.** Apirilaren 18an, larunbatean, 20:00etan Etxarri Aranatzan. **Sare.**

**Euskal Presoak Euskal Herrira!** Apirilaren 19an, domekan, 20:00etan Altsasuko plazan, elkarretaratzea.

**Sakanako Sozioekonomi Behatokiaren bilera.** Apirilaren 20an, astelehenean, 18:00etan Arbizuko Utzaganen.

Ostiralero **SAIOA** 9:30etik 10:30era  
Errepikapenak 14:00etan eta 19:00etan.

**107.3 FM**  
**beleixe** online  
www.guaixe.eus

Piztu irratia!

## ASTEBURUKO AGENDA

### ASTEKO ERREPASOA:

albisteak, kirolak,  
Aritz Ganboa, Sareren manifestazioa,  
Castillo Suarez, Beñat Goikoetxea...

Esataria: *Alfredo*



&gt;&gt; Etxarri Aranatz

# Kontsumo arduratsuaren Ama-Lurra azoka

**Igandean, 10:00etatik 14:00etara, Etxarri Aranazko plazan Sakanako nekazaritza eta Abeltzaintza zein Nafarroako Mendialdekoa ezagutarazi eta gozatzeko aukera emanen du**

Sakanako lehen sektoreko ekoizleak, Belardik, laugarrenez antolatuko du Ama-Lurra azoka. "Laugarren edizio honetara ailegatzeko esan nahi du nekazaritzako ekoizpen eta kontsumo arduratsuko hitzordu hau sendotzen ari dela. Gero eta ezagunagoa da Nafarroan, Araban eta Gipuzkoan", dio Begoña Goikoetxeak, Etxarri Aranazko barraskilo ekoizlea eta azokaren antolatzailea den EHNEren Belardi lan taldeko kideak. Azokaren antolakuntzan Etxarri Aranazko Udaren eta Unamuno enpresaren laguntza izan dute.

Sakanako ekoizleekin batera EHNE-Bizilurren barruan dau den ekoizleak ere izanen dira Ama-Lur azokan izanen diren 20 bat postuetan: ezti ekologikoa, ardoa, arrautza ekologikoak, pasta ekologikoa, ogia, gozoki eta barazki ekologikoak, zein ohiko eta ekologiko erako behi eta ardi esnekiak, Pirinioetako patatak, edota behikia, ardikia, euskal zerrikia eta karakolak, besteak beste dastagai



Ibarreko produkturik onenak ikusteko eta dastatzeko aukera egongo da igandean Etxarri Aranatzen.

eta erosgai izanen dira. Horretaz aparte, Etxarri Aranazko bara-

tzeen ekimena ezagutarazteko stand bat izanen da. Aurten, gainera, euskal oiloak ezagutzeko erakusketa izanen da.

Ama-Lur azokaren eta ekintza osagarrien bidez abeltzainen martxa eta, bereziki, latxa artaldekin udaberrian egiten den lana plazara aterako dute. Izan ere, Urbasa, Andia edota Aralar bazketara artaldeak igo aurretik gazta egiten eta artilea moztzen ari dira artzainak. Bestetik, etxabeeren erakusketa zabalda, euskal

zerriki errea dastatzea, musika eta herri kirolek ere girotuko dute azoka.

## Egitaraua

**10:00etan** Azokaren irekitzea.  
**11:00etatik 15:00etara** Azoka gardena Sakanako ekoizleekin.  
**11:30ean** Ardi mozte erakustaldia.  
**11:30ean** Idiazabal gazta tailerra.  
**12:00etan** Euskal txerria errea dastatzeko aukera.  
**12:30ean** Herri kirolak.  
**Goizean** bertako ekoizleen abereen eta haien elikagaien erakusketa, trikitilariak eta beste.

[www.ehne.eus/bizilur/](http://www.ehne.eus/bizilur/)

Ama-Lurra azoka EHNEren Arco egitasmoan kokatzen da (Ardura Elkarbanatutako Nekazaritza). Indarrean bost urte eman du Bizilurrek eta berriki Internetera jauzi egin du. Han kontsumo arduratsuari buruzko informazioa eta on-line denda aurki daiteke. Bizilur azalean kontsumo arduratsuz sentsibilizatze eta ekoizle eta kontsumitzaileen arteko harremana erraztu da, eskaerak egitekoan.



## Nonerabili

### ETXARRI HORTZ KLINIKA

**ETXARRI ARANATZ**  
%10eko deskontua garbiketetan.

### LURESU

**ALTSASU**  
% 10eko deskontua eskaintza berezi eta enkarguetan izan ezik.

### NORTE ERLOJUDENDA

**ALTSASU**  
%7ko deskontua produktu berrietan, konponketetan eta aldaketetan salbu.

### MENDIGAIN URDEIAZPIKOAK

**LAKUNTZA**  
50€ko erosketarekin gero etxeko produktua opari.

### URREZKOA BITXIDENDA

**IRURTZUN**  
Bitxietan 100 €ko erosketarekin gero etxeko produktua opari.

### ETXARRI KOMERTZIALA

**ETXARRI ARANATZ**  
% 10eko deskontua koltxoietan.

### ARKANGOA TABERNA

**ALTSASU**  
Postrea edo kopa doakoa.

### GIXANE ESTETIZISTA

**ALTSASU**  
%5eko deskontua zerbitzu guztietan

### PINPILINPAUSA

**ALTSASU**  
50 €tik gorako erosketetan %10eko deskontu-bate bat hurrengo erosketarako.

[www.guaixe.net-en](http://www.guaixe.net-en) zerranda osoa ikusgai

## SAKANA

### Sakandarrak Iruñeko elkartean ekonomiar buruzko azokan eta jardunaldietan

III. Elkartean Ekonomiako Iruñeko azoka eta VIII. Elkartean Ekonomiari buruzko Nazioarteko Jardunaldiak egiten dira asteburuan. REASEk (Ekonomia Alternatibo eta Solidarioko Sareak) antolatu du eta gaurtik etzira arte Iruñeko autobus geltoki zaharrean izanen da.

Aipatu azokan sakandarrak euren produktuak eskainiko dituzte: Poxtineneko Gazta, Legarbe Karakolak, Erabili (moda eta osagarriak) eta Eclectica Complementos (bitxigintza artisaua).

Bestalde, VIII. Elkartean Ekonomiari buruzko Nazioarteko Jardunaldien barruan, bihar, 12:30ean, *Egungo kontsumo ereduari buruzko salaketak eta alternatibak* mahai-ingurua izanen da. Hartan hizlari izanen diren hiruetako bat Setemgo kide eta Nafarroako Arropa Garbia kanpainako koordinatzaile Jose Luis Mariñelarena irurizundarra izanen da.

**APIRILAK 18 LARUNBATA, 11:00 ETATIK AURRERA**



**Unamuno**  
Denda

**ATE IREKIEN JARDUNALDIA**  
**ETA AGRODENDA BERRIAREN ESTREINALDIA**

**Hamaiketako Eskaintza bereziak**  
100 eta 50 euroko 15 opari txartelen zozketa  
Egunean bertan, eskuz ordaindutako erosketarekin guztietan deskontu bereziak

**PRODUKTU BERRIAK:**

Lorategi eta orturako makineria txikia  
**HONDA** **ECHO**

Lanerako arropa eta oinetakoak  
**DICKIES**

Loreak, landareak, baserriko elikadura produktuak...



**948 562 829 · Faxa: 948 563 002 · Ondarria industrialdea · ALTSASU**





astekoa

Benjamin Zufiaurre Goikoetxea

## Palma Arena Balearetan - Reyno Arena Nafarroan

Iruñeko Sadar alboan Reyno Arena osatu dute, eta 58 milioi euro gasta ondoren, zilborra ikusiz, ezin da erabili kiroldegi bezala ez kontzertutarako. Aberastu asmoko Nafar floralak porrot egin du;

Lilulakeririk gabe ezin da bizi, dirudi, baina ez da erraza nahi dugun bezala bizitzea. Lilurakeri bakarrek gauzak korapilatzen dira asmakizunekin dena hankaz gora jartzen da;

Iruñeko Reyno Arena floral fatxada betetzeko zen, egina halaxeko itxurakeri bakarrek.

Hanka sartze zoragarri, haize freskoa behar, eta hankak errefreskatzekotan, lilurakeri berriek behar. Proiekzioz gabe geratu dira parlamentari margolariak, beraien Reynua ez doa zerura, salgai dago.

2008an onartutako Reyno Arena Kirolegia Aurreko erregea bezala, "derodriguez" dago. Kirol ekintzak behar, Reynon dena "esne mamitan" 12 mila pertsona, nafarrak eta kanpotarrak, ilusionatzeko;

Geure politikariak nahi zutena, pabiloia zen, baina pabiloia urtez urte 250.000 euroko faktura zekarren. 60 milioi gertuko kostua, gehi 250.000 mantentzea, urtez urte... Diru asko, eta Nafarroan dirua eta nortasun krisian...

Zergatik ez dute Reyno... bultzatu duten parlamentariak bere soldaketarekin ordaintzen egindako gastua, ezertarako balio ez duen Reyno Arena kiroldegia. Zergatik nafarrek ordaindu behar dute nafar politikariak Reyno amestean erabaki zutena... Bere handitasuna azpimarratze-koedo, baina erridikuloa eginez.

## hara zer dien

# Emakumeen parte hartze sozio politikoa

Emakumeen parte hartze sozio politikoa inguruan hitz egiten denean zer ulertzen dugu?

Parte hartzea modu zabal batean uler daiteke. Emakumeek maila indibidualan zein talde mailan aurrera eramaten dituzten ekintzak. Instituzioetan zein instituzioetatik kanpo eman daitekeen parte hartzea izango da. Egungo jendaratean eragin eta eraldaketa politikoa soziala jomuga izango duena. Parte hartze hau puntuala edo estrategikoa

izan daiteke. Botua emanez, gizarte mugimendu ezberdinetan parte hartuz, alderdi politiko bateko kide eginez...

Baina emakumeen parte hartze politikoz hitz egiten denean arreta berezia eskaini behar zaio parte hartzeko bidean emakumeek topatu izan dituzten oztopoei. Alde batetik, oztopo hauek estuki lotuta daude arlo pribatu eta publikoaren artean egiten den banaketa tradizionalarekin. Gizonezkoak arlo publikoaren lotu

izan diren bitartean emakumei, berriz, arlo pribatua egokitu izan zaie.

Emakumeen parte hartze politikoa oztopatzen duten oztopo formalak egon badira ere, oztopo informalki edo ikustezinak ere egon daitezke, egun, oraindik: emakumeen segurtasuneza, emakumeen erresistentzia... Honek, lan munduan erabili izan den kristalezko sabaiarekin topo egin izan dute emakumeek.

Horregatik, Udal eta Foru hau-

teskundeak ate joka ditugun honetan, emakumeen parte hartzeko baldintzen hobekuntzak izan behar du erronka. Alde batetik, emakumeek gizarte eta politikan parte hartzea oztopatzen duten genero estereotipoak ezabatuz eta bestetik, emakumeak erabaki guneetara iristea ahalbidetuz.

**Emakumeen Bilgunea**

## gutunak

Atal honetan ahalik eta iritzi gehienek tokia izan dezaten **1.500 karaktere** (espazioekin) baino gehiago duten gutunik EZ DA ONARTUKO. Karaktere kopuru horretatik gorako gutun

gutunak LABURTU egingen dira. Gutunetan izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Gutunak asteazkeneko goizeko

hamarretarako egon behar dira gurean; bestela, ez da aste horretan publikatuko. Guaixe aldizkariak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzi

erantzukizunik. Zure iritzia helarazteko: **Foru plaza 23, 1 Altsasu; gutunak@guaixe.net edo 948 564 275 telefonoa.**

### Petardorik ez

Alodia Alvaro Igoa

Aurreko hilabetean Libre eguna ospatu zen Etxarrin. Bateon batzuk petardo zaratzatu batzuekin "jolastea" erabaki zuten. Haietako batek, familiako etxearen kontra jo zuen. Pozik gauden, kanalo bat besterik ez zuen hautsi; zertxobait desbideratu eta leihoan jo balu kristala hautsiko lukeela uste dugu. Sarri jai egun gehiago ospatuko dira herrietan, mesedez, KONTUZ IBILI petardo hauekin. Okerragorik ez gertatzeko.

### Enbido handira!

Urko Aristi, TOKIKOMeko lehendakaria

Eskubaloi jokalarien antzera, guk ere pilotagure eskutan dugu. Inoren atean gola sartzearekin tematu baino, partidua irabazi nahi dugu. Laisterkariaren moduan, guk ere helmuga argi, abiapuntuan indarrak neurtu, eta azken sprinteak barrukoak hustu behar ditugu. Apirilaren 25ekoa izango da, gure maratoni honen abiapuntu eta helmuga. Mugarrira. Euskararen alde izerdi patsetan aritzen garen, eta aritzeko prest gaudenon jokuzelaia

izango da Anaitasuna.

Gihartsu gaude, osasuntsu. Edozein erronkari ekiteko prest. Ekin, eta egiteko prest. Obstakulu karreretan izan dugu entrenamendua. Gehiegi izan dira trabak, baina gainditu ditugu. Kostata, bai, baina etsi gabe. Eta honaino iritsi gara. Muskulua atera behar dugu orain. Dotore jarri, eta erakutsi gure giharreak, lotsa eta konplexurik gabe: gurean, komunikabideenean, aspaldiko partez, modu eraikitzaile eta baikorrean ari gara. Ezin ahaztu bidean zerraldo gehiegi utzi dugula. Eta gurean ari garen baldintzak, nabarmen kaxkartu direla. Baina oraintxe bi agerkari aurkeztu berri ditugu: euskalerrairratia.eus eta erran.eus. Biek ere eskualdekako euskaldunen topaleku izan asmo dute. Komunitatea sendotu eta trinkotu. Iruñerrian euskarazko toki telebista jarri berri dugu abian. Ere berrietara zabaldu dugu euskara. Guztietan behar duelako present gure hizkuntzak, present eta indartsu. Besteen pare, ez hizki txikiagoz edo argiagoz. Pare pare. Gu ere bagarelako nafar, eta ez bigarren mailako herritar. Guk ere badugulako, besteek adina eskubide. Eta euskarazko komunikabide txukunak

izatea bada, gure nahia, baina batez ere gure eskubidea.

Mendizaletasuna da, akaso, euskaldunon kirolrik kuttunena. Gailurrera bidean, maldan gora, hazi egiten gara. Tontorra gertu dugu, eta arnasa bukatzen ari zaigun honetan, elkarri auspotu, bultzatu, eta aurrera bidean jarri beharra daukagu guztiok. Guztiok, ez soilik kirolari finenak, baita alperrenak ere. Guztiok helduko gara puntara, edo ez gara iritsiko. Badira, kanpora atera eta nekatu beharrean mahai baten bueltan musean aritu nahiago dutenak. Haietara ere behar ditugu. Partida hau ere irabaziko dugulako. 31 dugu eskutik. Tranparik gabe, besteak bait dira tranpak. Duenarekin seguru dagoenaren ausardiaz, enbidoa jotzeko ordua da, enbidoa handira!

Horregatik "Anahitasuna". Handia delako, gure handitasuna erakusleio. Izena eta izana, biak ditu apoposak. Anaitik bezain beste dugulako nahitik. Nahi dugunok gara anai, euskarak egiten gaitu anai. Horregatik, anai-arreben arteko sestran baino, familia aurrera ateratzeko guztiok behar dugu elkartu, eskua elkarri eman, eta batak besteari bultzatu. Aldaketa izango bada, esparru askotan behar-

Atal honetan ahalik eta iritzi gehienek tokia izan dezaten **1.500 karaktere** (espazioekin) baino gehiago duten gutunik EZ DA ONARTUKO. Karaktere kopuru horretatik gorako gutun guztiak LABURTU egingen dira. Gutunetan izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Gutunak asteazkeneko goizeko hamarretarako egon behar dira gurean; bestela, ez da aste horretan publikatuko. Guaixe aldizkariak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzi

erantzukizunik. Zure iritzia helarazteko: **Foru plaza 23, 1 Altsasu; gutunak@guaixe.net edo 948 564 275 telefonoa.**

ko da, noski! Kalterako ikur izan den bezala, partida berriaren ikur ere beharko luke euskarak, eta hori kartak banatuko dituztenei ikusarazi behar diegu, baina batez ere guk gerorrek sinistu behar dugu. Bagarela gai, nahi dugula, baina ez dela ametsa, gure nahia dela, kantuak dioenez, eta nahi hori gauzatu dugula. Gauzatu behar dugula. Anahitasunetik abiatuta. Orain enbidoa joko dugula handira, eta aurki ordagoa etorriko dela!

# Guaixe



**ERREDAKZIO BURUA:** Alfredo Alvaro Igoa • guaixe@guaixe.net  
**ERREDAKZIOA:** Maider Betelu Ganboa • kirolak@guaixe.net  
**MAKETATZAILA:** Ainhoa Etxeberria Pikabea  
**PUBLIZITATEA:** Maria Saez de Albeniz • publizitate@guaixe.net  
 eta Eneida Carreño Mundiñano • publi@guaixe.net  
**ERREDAKZIO LAGUNTZAILEAK:** Maialen Huarte Arano, Eñaut

Agirrebengoa Apaolaza eta Larraitx Amadoz Lazkano  
**ZUZENTZAILA:** Maria Luisa Zelaia Mendia  
**ARGITARATZAILA:** Bierrik Fundazioa. Foru plaza 23-1. 31800 Altsasu • 948 564 275 • 948 562 107 • 618 882 675  
**KOORDINATZAILA:** Goizeder Anton Iturralde • bierrik@guaixe.net  
**DISEINU ZERBITZUA:** Guaixe Komunikazioa • Amaia Amilibia Salgado • argi@guaixe.net  
**ADMINISTRAZIOA:** Gixane Andueza Goikoetxea • zorion@guaixe.net

**LEGE GORDAILUA:** NA-633/1995  
**TIRADA:** 3.200

**LAGUNTZAILEAK:**

**Mank**  
 s a k a n a

**BAZKIDEAK**

**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**  
 HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
 ETA KULTURA SAILA  
 Hizkuntza Politikarako Salburuzordeta

OLAZTIKO INDUSTRIALDEA

**LUR SAILEN PREZIOA MERKEAGO:** Nafarroako Gobernuak erabaki du berak sustatutako Arkinorruti industrialdeko lur sail-

len prezioa %25 merketzea. Partzelako metro karratu bakoitzeko 39,75 euro ordaindu beharko dira (BEZ kanpo).

# sakanerria >>

SAKANA

## Kontseiluaren Anaitasunako ekitaldira autobusez joateko aukera

Euskararen Gizarte Erakundeek Kontseiluak Iruñeko Anaitasuna kiroldegian ekitaldia antolatu du apirilaren 25erako, 18:30ean. Nafarroan behar beharrezkoa den hizkuntza-politikarako proposamena aurkeztuko da ekitaldian. Sakanako Mankomunitateko Euskara

Zerbitzuak Anaitasunara autobusez joateko aukera eman du. Autobusa Ziorditik 16:30ean abiatuko litzateke. Izena eman nahi duenak asteazkeneko 14:00ak arteko epea du euskara@sakana-mank.com helbidean edo 948 464 840 telefonon izena emateko.

### Ekitaldia baino askoz ere gehiago

Kontseiluak antolatutako ekitaldiaren harira Iruñerriko euskalgintzak eguna girotzeko Ezkaba mendirako lasterketa ez lehiakorra antolatu du apirilaren 25erako, 10:00etan abiatuko da. Bestal-



ELA, LAB, EILAS, ESK, EHNE eta CGT sindikatueta kideak ekitaldiarekin bat.

de, Anaitasuna kiroldegiko jatorrean Julio Soto, Alaia Martin eta Fredi Paiarekin bertso-bazkaria izanen da. Informazioa euskarazbi-

zinahidut@gmail.com helbidean eska daiteke. Azkenik, 17:00etan, Baratzurien plazatik kiroldegirako kalejira abiatuko da.

## Plan Estrategikoaren jarraipen bilera

**Astelehenean, 18:00etan, Arbizuko Utzaganera joatera deituak izan dira udalak, alderdiak, sindikatuak, enpresariak eta hainbat elkarte**

Sakanako Sozioekonomia Behatokiak Sakanako Plan Estrategikoa (SPE) joan den urteko maiatzean onartu zuen. Behatokitik orduan jakinarazi zuten planean zehaztutako helburu eta ekintzen jarraipena egin beharko zela. Sakanako Garapen Agentziako Iker Manterolak esan digunez, "nahitaezkoa da egindako lanaren inguruko hausnarketa sakona egitea: egin-



Sakanako Plan Estrategikoa zehazteko bileretako bat.

dakotik ikasiz, akatsak zuzenduz eta etorkizunari zuzen begiratu. Plan Estrategikoaren arrakasta hein handi batean jarraipenari lotua dago".

Manterolak argitu digunez, "gaur egun, aldaketa sozioekonomikoak oso azkar ematen direla kontuan harturik, gurean abian jarri dugunaren antzeko Tokiko Garapen prozesuek egoera aldatkorretara moldatzeko ahalmena ezinbestekoa dute". Hori dela eta, asteleheneko bileran Sakanako

Sozioekonomia Behatokiak SPE onartu zenetik egindako lana baloratu eta aurtengo ekintzak zehaztuko ditu.

Toki erakundeek eta Sakanako eragileek hartu zuten bere bizkar SPE egiteko lana, ekonomia sustapena Nafarroako Gobernuaren eskumena dela jakinik. Plana onartu zenetik Nafarroako Gobernuaren parte-hartze aktiboa bilatu du eta astelehenean planaren negoziazio batzordeak bere jardunaren berri eman du.

## Berrikuntzari eta teknologia berriei buruzko jardunaldia

**Maiatzaren 12an izanen da, Arbizuko Utzaganen. Cederna-Garalurrek turismo enpresari berrikuntzaren ikuspuntu berri bat emateko antolatu du**

Cederna-Garalurrek enpresei zuzendutako sentsibilizazio-jardunaldia da antolatu duena. Antolatzailerek esan dutenez, "ekonomia ereduaren eraldatzen ari den une honetan, berrikuntza enpresa txikien eta ertainen lehiakortasuna hobetzeko erronka eta aukera da,

aldi berean. Gure asmoa enpresa horien negozioak finkatzen lagunduko duten joera teknologikoei aurrea hartzen eta joera horiek identifikatzen laguntzea da.

Maiatzaren 12ko jardunaldian, besteak beste, gai hauek landuko dira: berrikuntza merkataritza-sektorean on line bidezko marketing teknika berrien bitartez, eta bezeroak leial bihurtzea; berrikuntza enpresa txikien kudeake-

### Praktika onak

Seilantetxek zerbitzuegokia emateko, Garalurrekin Praktika Onen izendapena eskuratzeko saioak hasiko dituzte astelehenean.

tan; merkataritza digitala; web posizionamendua eta turismo-sektoreari begira, Interneten marka kudeatzea.



Bidelagun elkartearekin batera erabaki zuten Cederna-Garalurrekoek turismo arlorako bidera-

### Izena ematea

948567010 zenbakira hots eginez, edo sakana@cederna.es helbidera idatziz.

tze jardunaldia. Bospasei enpresen teknologia berrien buruzko diagnostika egingen da ere, eta hobetzeko proposamenak egingen dizkiete.



BIZITZA EDOZEIN MOMENTUTAN ALDA DAITEKE. CITROËN C4 PICASSO. FAMILIA BAT HASTEKO ARRAZOI ON BAT.

CRÉATIVE TECHNOLOGIE

CITROËN nahitago du TOTAL. \*Aholkatuta PSP 130 5&S 6v Citroën C4 Picasso Pure Tech-erako (zergak, garraioa eta eskaintza barne), bere izenean zegoen kotxea ekartzen duten bezero partikularrendako eskaintza, 6000€ko gutxieneko finantziarioa eskatzen dutenak Banque PSA Financieren bidez 36 hilabetez iraupena izango dutenak. Aholkatutako PSP finantziarioa ez duten bezeroentzat: 16.800€. Hilabete akabera arteko epea parte hartzaileen salmenta tokietan. Eskaintza ez bateragarria. Ikusgai dagoen modelo: Citroën C4 Picasso Exclusive. Baldintzak www.citroen.es (1) Citroën asistentzia: Baldintzen argibideak www.citroen.es. Automóviles Citroën España, S.A. c/ Dr. Esquerdo, 62 - 28007 Madrid. CIF: A-82844473

KONTSUMO MIXTOA (L/100 KM) / EMISION CO2(G/KM): CITROËN BERRIA C4 PICASSO: 3.8-5.8 / 98-134



CITROËN C4 PICASSO PURETECH 130 SEDUCTION 15.300€<sup>CGATIK</sup>



citroen.es

8 URTE CITROËN ASISTENCIA Matxura eta lurriguetan doako laguntza!

## » Uharte Arakil

# Gerran eraildako hiru uhartearren senideak eta udala bilerara deituta

Oltzako Zendearen Ororbiako udaletxean izanen da bihar, 11:00etan. Iberon lurperatu zituzten 43 pertsonen familiak eta haien jatorriko 14 udalak dauden deituta bilerara

1936ko estatu kolpearen ondorioz, Oltzako Zendeako Ibero herriko Hiru Gurutzeen gainean gutxienez eraildako 43 pertsonen gorpuak lurperatuak daudela diote hainbat artikulu, albisteketa leku-kotzek. Oltzako alkate Pedro Mari Azparrenek jakinarazi digunez, lurpean egon daitezkeen artean Silverio Astiz Lakunza eta Silverio Astiz Ezkurdia aita-semeak eta Victor Martiarena Irañeta leudeke.

Azkenaldian hainbat elkarte memorialistak sustatzen ari diren ekimenak ikusirik, Oltzako Zendeako Udalaren aldetik egoki jo dute



Astearteko lore eskaintzarekin langile batailoietan egon zirenak, haien senideak eta askatasunaren eta justiziaren alde borrokatu ziren ideia errepublikanako eta ezkertiarreko pertsonak omendu zituzten astelehenean Altsasun, Ezker Batuak deituta. +www.guaixe.eus

batzar ireki bat egitea. Azparrenen esanetan, "Egia, Justizia eta Erreparazioa lortzeko egon daitezkeen aukerak aztertuko ditugu. Udalan uste dugu halako ekimen batek adostasuna behar duela senideen,

inplikaturako administrazioen eta memoria historikoaren defentsan ari diren eragileen artean". Senideei, udalei eta Nafarroan memoria historikoa lantzen ari diren elkarteei bidali diete gonbitea.

## » Etxarri Aranatz / SAKANA

# Kaxubiarrak Andra Mari ikastolan



Kaxubiarrak azalpen asko eman zizkieten Poloniara joanen diren ikasleei.

Martxoaren 31n izan ziren bisitan. Baltiko kostaldeko, Polonia iparraldeko hizkuntza da kaxubiera. 250.000 hiztun inguru ditu eta egoera kaxkarrak du. Euskarak azken hamarkadetan egindako bidea dute oinarri berreskuratzeko prozesuan.

Andra Mari ikastolak 2009ko Nafarroa Oinezekin batera martxan jarri zuen Txikiak Handi proiektua. Haren helburua hizkuntza gutxituen aldarrikapena eta beraien arteko sarea osatzea da. Urtez urte sarea handitzen joan da eta, aurten, Baztan ikas-

tolak kaxubiera gehitu dio.

Hori dela eta, Baztango ikastolak gonbidatuta, Aste Santuko oporren aurretik Kaxubiatik etorritako ordezkari bat Euskal Herrian izan genuen. Kaxubiako hizkuntza eta kultura bultzatzen duen Kaszëbskô Jednota (Kaxubiarraren Batasuna) elkarteak Korrika-ren Bilboko akabera eta beste ezagutu zituzten. Bisitaldian Andra Mari ikastola bisitatu zuten eta DBHko 2. mailako ikasleekin bildu ziren.

Ingelesez arituz, bi herrialdeen arteko elkar ezagutzan sakondu zuten aldeak.

## Sakanatik Poloniara

Bisita hau oso baliagarria izan zen DBH 2ko ikasleendako, izan ere, Erasmus + programaren eskutik maiatzaren azken astean Kaxubia ondoko Elblag herriko ikastetxe batera joateko aukera izanen baitute. Erasmus + Europar Batasunetik hezkuntzan ematen diren beka garrantzitsuenak dira.

Andra Mari ikastolak, Europako beste zortzi zentroekin batera, In the paradise garden of Europe izeneko proiektua aurrera eramaten du. Bi ikasturtetan Polonia, Austria, Hungaria, Errumania, Italia, Portugal, Lituania eta Greziako ikastetxeekin elkarlanean arituko dira DBH 2ko ikasleak. Proiektuaren xedea, Europar ezezagunak diren baina xarma berezia duten natura-espazioen mapa bat osatzea da. Ingelesez egiten ari diren lan horretan, Sakanako bizitza, kultura, ohiturak eta hainbat natura-espazio aztertuko dituzte, ondoren ikastetxe kideekin partekatuko.

## » Satrustegi / Irañeta

# Plaza bat Alicia Aristregi Berazaren omenez

Satrustegi eta Irañetako gurasoak zituen emakumea Uharte Iruñean bizi zen. Haren hilketaren urteurrenean Uharte Iruñeko Udalak Alicia Aristregi Berazaren izena eman zion herri erdiguneko plaza bati. Antolatutako ekitaldi genero indarkeria bizi izan duten eta bizi duten emakumei omenaldia bihurtu zen. Baita harekin bukatzeko egiteko asko dagoela gogorarazteko ere. Senarrak Aristregi hil zuela 13 urte bete ziren pasa den ostegunean. Emaztearengandik urruntzeko epai-learen agindua hautsi eta Atarrabiko autobus geltoki batean Jesus Gil Pelaezek bost labankadaz hil zuen Aristregi, biseme utziz. Gili 22 urteko espetxe zigorra ezarri zioten. Atarrabian, hil zuten tokian, gertaera gogorarazten duen plaka dago.

## » Arbizu

# Lore azokak zazpi postu izanen ditu

Igandean, 10:00etatik 14:00etara, Arbizuko plazan

Arbizuko loreekin duen hitzorduari ez dio aurten ere huts egingen. Orain landatu edo aldatuko diren loreakasko edertuko baitute herria hurrengo aste eta hilabeteetan. Horren jakitun Arbizuko Udalak 2010ean lore azoka antolatu zuen estreinakoz, urtez urte segida izan duena. Plazan zazpi salmenta postu egonen dira igandean. Haie-tatik seik landareak salduko dituzte eta zazpigarrenak artisauroak. Landare eta loreak ez dira igandean Arbizuri kolorea emanen dioten bakarrak, master mailako bizikleta proba ere baitago.

## 016 doako telefonoa

Eguneko 24 ordutan eskura dago, Espainiako Gobernuak biktimen arretarako jarritako telefonoa. Deiak ez du arrastorik uzten telefono fakturan.

## » Uharte Arakil

# Igerilekuko tabernajaketxea errentan emateko deialdia

Uharteko Udalak Itxesiak igerilekuko taberna eta jabetxearen kudeaketa emateko deialdia egin du. Interesatuak hilaren 24ra arteko epea dute proposamenak aurkezteko.

## SAKANA

# Aralarko zur zertifikatua enkantera

Aralarko Elkarteak, plegu itxiko enkan-tebidez, Aralar mendiko pago zur lotea salduko du. 3.299 zuhaitzek osatzen dute lotea eta 157,6 m<sup>3</sup> eta 3.321,5 m<sup>3</sup> egur egiten dute. Aralarko Elkarteak 55.340 euro eskatu du loteagatik. Interesatuak euren proposamenak maiatzaren 5era arte Lakuntzako udaletxean aurkeztu ditzakete.

## » Altsasu

# Parkinsonari buruzko argibideak

Asteazkenean, 10:00etatik 13:00etara, azokan informazio mahaia egonen da eta 17:30ean mahai-ingurua osasun etxean

Parkinsonaren Eguna hilaren 11n izan zen. Nafarroako Parkinson Elkarteak, Anaparrek, hainbat ekitaldi antolatu ditu herrialdean baina. Parkinson gaitz neurodegeneratiboari buruzko informazioa zabaldu eta gaixoen gizarte inklusioa sustatzea izanen da Altsasun egiten diren bi jardueren helburua. Hala, goizean, azokan Parkinsonari buruzko informazioa zabaltzeko mahaia jarriko dute. Arratsaldean, berriz, gizarte langileek parte hartuko duten mahai ingurua izanen da osasun etxean. Anaparrek Parkinsona eta elkartea bera ezagutzeko gonbitea egin du.

## » Urdiain

# Eskolako ikasleen robotika erakustaldia

Asteartean, 15:00etan, eskolan lehenik eta gero Aitziber elkarteak goiko ganbaran

Urdiaingo eskolako Lehen Hezkuntzako seigarren mailako ikasleek robotika erakustaldia antolatu dute eta urdiaindarrak parte hartzea gonbidatu dituzte. Hiru urte dira Urdiaingo eskolan robotika lantzen ari direla. Bi atal ditu lan horrek. Lehen, proiektu zientifikoa, gai jakin baten inguruko dena. Aurten ikasleek non, nola eta zer ikasi nahi duten azaldu dute proiektuan. Aurkezpen hori eskolan bertan egiten dute, ikastetxearen beharrak eta arazoak konpontzeko proposamena baita proiektua. Bigarren atala, roboten programazioa da eta horren inguruko erakustaldia Aitziber elkartearen dute. 6. mailako ikasleek urdiaindarrak parte hartzea gonbidatu dituzte.

Zatoz gure ardotezia ezagutzera!

**HIJOS DE GOIKOETXEA**  
EDARI BANATZAILA

Geltoki auzoa 11 · Altsasu  
948 467 317 · 696 979 279 · hijosdegoikoetxea@yahoo.es

**TXIKITXO**  
haurren arropa eta lentzeria

948 46 73 08  
Ferialeku 2 · ALTSASU

**PPSOE,**  
**ETB**  
**digitala**  
**Nafarroan**  
**orain!**

**Berria erosi taldea**



## » Etxarri Aranatz

# Etxarrin osasun zerbitzu guztiak euskaraz jasotzeko eskubidea aldarrikatu dute

**Hori lortzeko herritarrek Nafarroako Gobernuari zuzendutako eskaera sinatzera animatu dituzte**

Etxarri Aranazko Udalak, EHE, UEMA eta Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuarekin elkarlanean, Medikuek euskalduna nahi dut ekimena martxan jarri dute. Haren bidez Etxarriko osasun zerbitzu guztiak euskaraz jasotzeko eskubidea aldarrikatu nahi dute. Horretarako, maiatzera bitartean herritarrek Nafarroako Gobernuari zuzendutako eskaera sinatzera animatu dituzte. Antzeko kanpaina martxan da Baztanen, Bortzirietan eta Leitzaldean.

## Egoera

Euskararen Legearen arabera, "herritar guztiak dute administrazio publikoarekiko harremanetan euskara zein gaztelania erabiltzeko eskubidea, eta beraz, eurek aukeratzeko hizkuntza atendituak izateko eskubidea".

Zoritzarrez, Nafarroako Gobernuak etxarriarrei ez die osasun asistentzia guztia euskaraz izate

bermatzen. Kanpainako sustatzaileek nabarmendu dutenez, adibide garbiena Emakumeen Arretarako Zentroa da: "bertako lanpostuek ez dute euskara eskakizunik: ginekologoa, emaginak, hezitzailea eta administraria". Gaineratu dutenez, Osasun Etxeko beste lanpostuetan ere ez da beti bermatzen profesionalek euskaraz jakitea; "esaterako, bertako mediku, pediatra edo erizainen ordezkioak kontratatzen direnean, edo urgentziako zerbitzuetan".

## Eskaerak

Horren aurrean, kanpaina bulkatu duten erakundeek herritarrei dei egiten die zerbitzu euskalduna izateko eskaera formal egin dezaten. Horretarako eskaera idatzi eredu sortu dute, Etxarrin jasotzen diren osasun zerbitzu guztiak euskaraz jasotzea nahi dela adierazteko. Zehazki, hiru eskaera egiten dira: Batetik, lanpostu horiek plantilla organikoan euskara eskakizuna izan dezate. Bestetik, dagoeneko lanean ari



Etxarri Aranazko osasun etxea.

diren eta beharra duten langileek euskalduntze plan bat izatea. Eta, azkenik, idatzizko euskarriak ere euskaraz egotea bermatu dadila (hizkuntza paisaia, agiriak, zitzioak, txostenak, aholku-zerrendak...). Jasotako eskaera guztiak Osasunbideari, Arartekoari eta

Hizkuntza Eskubideen Behatokiari aurkeztuko zaizkio.

Eskaera Etxarriko osasun zerbitzuen (Osasun etxea eta Emakumeen Arretarako Zentroa) erabiltzaileek sinatu dezakete, beti ere, 16 urtez gorakoek. Maiatzaren 31ra arte sinatu daitezke eska-

erak. Osasun Etxean, Etxarriko udaletxean (10:00etatik 14:00etara), Liburutegian (16:30etik 20:00era) eta herrian jarriko diren bilketa puntu berezietan sinatu daitezke. Igandean, esaterako, Etxarriko plazan sinadurak biltzeko mahaia jarriko dute.

## SAKANA

# 51 langabe gutxiago

**Martxo akaberan 1.506 sakandar lan bila zeuden, joan den urteko otsailean baino 218 gutxiago. Sakandarrek 647 kontratu sinatu zituzten, otsailean baino 109 gehiago (gizonezkoek %59,2 eta emakumezkoek %40,8)**

Hirugarren hilabetez jarraian langabe kopuruak behera egin du. Martxo akaberan 51 gutxiago ziren eta urtea hasi denetik guztira 133. Hala ere, gauzak gutxi aldatu dira eta lan bila jarraitzen duten gehienak emakumezkoak dira, 817 (%54,25 eta 11 gutxiago). Gizonezko langabeak, berriz, 689 dira (%45,75 eta 40 gutxiago).

Adin tarteari dagokionez, 45 urte edo gehiago dutenak dira langabe gehienak: 708 (%47,01 eta 12 gutxiago). 25 eta 44 urte bitar-

teko langabeak 665 ziren, (%44,16 eta 26 gutxiago) eta 25 urte baino gutxiagoko langabetuak 133 (%8,83 eta 12 gutxiago).

## Sektoreka

Lan bila dauden sakandar gehienek, 902, zerbitzuen sektorean lanegin nahiko lukete (%59,89 eta 23 gutxiago). Industrian aritzeko eskaerak 374 ziren (%24,83 eta 25 gutxiago). Eraikuntzarako lan eskatzaileak 107 ziren martxo akaberan (%7,10 eta 3 gutxiago). Aldiz, lehen sektorean aritzeko eskaerak 34 ziren (%2,26 eta 5 gutxiago). Azkenik, aurretik lanik egin ez duten kopuruak, atzera ere, gora egin zuen martxoan, 89ra iritsiz (%5,91 eta 3 gutxiago).

## Bakaiku

# Bakaikun udazkenerako gas sarea izanen da

**Gasa izanen duen Sakanako 11. herria izanen da Bakaiku**

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Departamentuak Gas Navarra enpresari Bakaikuko udal mugapean gas naturala banatzeko sarea egiteko baimena eman dio. Hala jakinarazi zuen asteartean Nafarroako Aldizkari Ofizialak. Lanen espedientea aztertu eta alegazioak aurkezteko 20 eguneko epea dago.

Gas Navarratik jakinarazi digutenez, gaur egun Sakanako hamar herritan ematen dute zerbitzua: Irurtzun, Uhartea Arakil, Lakuntza, Arbizu, Etxarri Aranatz, Iturmendi, Urdiain, Altsasu, Olatzagutia eta Ziordia. Guz-

tira 5.700 bezero ditu Gas Navarrak ibarrean, %55eko batz besteko sarpena. Irurtzunek eta Altsasuk dute indize handiena. Aurten hiru urte bete dira Iturmendi eta Urdiainen gasa jarri zela. Bi herrietan %20 baino gutxiagoko sarpena du gasak. Enpresak bi herrietan jarduera komertzial bereziak eginen direla aurreratu digu.

Enpresatik jakinarazi dutenez, aurten Sakanan 300.000 euroko inbertsioa eginen dute. Bakaikun sarea jartzearekin batera, gainontzeko herrietan dauden gas banaketa sareak zabaltzeko eta argu-neetarako lanak egiten hasi da. Azken horiek bezero berriei zer-



Iturmendiko gas sarea egiteko lanak.

bitzua eman ahal izateko dira. Komunitateetako azpiegitura hartzaileen mantenuan ere ariko da enpresa.

## » Arbizu/Altsasu

### Katealde eta Laket Artesanos Madrigo Gourmets azokan

Astelehenetik atzora arte Madrigo Gourmets izan da Ifema erakustazokan. Katealde eta Laket Artesanos enpresa sakandarrek euren kalitatezko produktuak aurkeztu eta dastatzeko eman zituzten han. Bi enpresak Nafarroako standean egon ziren euren produktuak ezaugarazten. Eta toki berean Idiazabal jatorri izendapeneko gazten dastatzea egin zen ere.

**Txalaparta**

**Taberna**

948 467 070  
Zumalakarregi plaza  
**ALTSASU**

**BILTOKI**  
TABERNA • JATETXEA

Pintxoak  
Bokatak  
Plater konbinatuak  
Karta

Astelehenetik ostiralera  
Eguneko menua  
8,25€

Asteburuetan  
Menu berezia 25€

948 467 876 • Altsasu

Ogiaren artisauek

**PORTUKO**  
okindegia

Espelta ogia egiten dugu. Aurretik eskatu!

ETXARRI ARANATZ: 948 460 988  
ALTSASU: Denda: 948 563 822 • Lantegia: 948 467 153

&gt;&gt; Etxarri Aranatz

# Euskal preso eta iheslarien aldeko sarea zabaltzera



Sakanako makina bat eragilek eman dio babesu ekimenari.

**Bihar, 20:00etan, manifestazioa Etxarri Aranatzaren Sarek deituta**

Sarek sakabanaketarekin bukatzeko eta preso gaixoak berehala etxeratzeko eskatuz Euskal Herrian barna makina bat ekitaldi antolatuta ditu astebururako. Haietako bat Etxarri Aranatz

eginen den Orain Euskal Herri leloa duen manifestazioa izanen da. Sakanako hainbat taldek eta herritarrek euren konpromisoa azaldu eta deialdiarekin bat egin dute. Konpromisoak sare-tzen segitzeko asmoa dute Sakanako Sareko kideak. Aurreratu

dutenez, etorkizunean, horretarako aukera eman.

## Presoekin elkartasun eguna

Euskal presoek Euskal Herrirantz eta haien eskubideak bermatuak izan daitezela eskatzeko Etxarri herri mugimenduak Elkartasun Eguna antolatu du biharko. Egun osoan egitaraua prestatu dute aldarrikapena presente egiteko.

### Egitaraua

**10:00etan** Mural margoketa. Ekimen parte-hartzailea.  
**11:00etan** Puzgarriak.  
**14:30etan** Herri bazkaria.  
**22:00etan** Orain Euskal Herria, manifestazioa.  
**20:30etan** Dantzaldia Bide batez taldearekin.  
**22:00etan** Zezensuzkoa.  
 Egun osoan presoek egindako artelanak ikusgai.

eta iheslaririk ez egotea etxetik urrun da. Sakanan sakabanaketari eman diogu lehentasuna. Sakanako errealitatea ematen duen dokumental bat egin dugu: Urruti & gertu. Presoen, senideen eta lagunen errealitatea islatzen da. Errealitate hori kontatu eta gero, bigarren fasean, eragileekin konpromisoak adosten hasi gara. Sakabanaketa politika salatu eta preso dauden gaixoak askatzea eskatzen duen presio soziala aktibatuz.

### Liburuxka bat lagun?

Mundu osora dispertsioaren errealitatea zabaltzen duen liburu bat banatzen ari dira. Sakabanaketaren, eskubide urraketaren berri erraz ematen du.

### Ekitaldi sarea asteburuan, ezta?

Bai. Guk atxikimenduak bilduz manifestazioa deitu dugu. Baina Euskal Herrian barna 50 bat ekimen izanen dira. Denek helburu bera izanen dute: sakabanaketarekin amaitzea, gaixo dauden preso askatasuna eta konponbidea eta bakea aldarrikatzea.

### Dispertsioarekin bukatzeko sare herritarra osatzen ari da?

Pixkanaka sarea ehuntzen ari da. Sakabanaketarekin bukatzeko garrantzitsuena sentsibilitate ezberdineko pertsonak elkartzea da. Eskubide urraketa larri baten aurrean gaude. Sakabanaketa 17 hildako izan dira. Astebururako presoek senide eta lagunek hainbat sufrimendu dituzte. Horrekin bukatzeko euskal gizarte osoak egin behar du bat, sarea pixkana ehuntzen ari da.

### Zergatik sarean?

Uste dugulako euskal gizarteak sakabanaketa bukatzeko presioa egin dezakeela. Harekin bukatzeko giltza espainiar estatuak dauka. Presio politikoak eta gizartearenak giltza eskuetan erretzeak ekar dezake, eta nolabait, irtenbidea bilatzea.

### Urte bat saretzen. Zer eman du?

Sentsibilitate ezberdineko pertsonak elkartzea, pertsona oro-ren giza eskubideak errespetatuz eta bermatuz. Sarearen helburua konponbidea, bakea eta preso

gertutik >>

Mikel Mundiñano

Sareko kidea

### Euskal Herrira orain. Zein?

Euskal preso eta iheslariak. Aspaldiko aldarrikapena da. Momentua da haiek Euskal Herrira bidean jartzeko.

### Presoak. Zergatik?

Garai berriak eta giza eskubideak errespetatu beharra aipatzen den honetan, presoek ez dituzte haien eskubideak bermatuak. Horien artean dago sakabanaketa eta horrek sortzen dituen hamaika sufrimendu eta kalte. Eta, bestetik, gaixo dauden eta adinduak diren presoek askatasuna. Beste hainbat eskubide urraketa daude.

### Iheslariak. Zergatik?

Herri honetan konponbidea eta bakea behar ditugula esaten da. Iheslarien aferari konponbidea emateko garaia bada ere. Euskal Herrian behar ditugu ere.

SAKANA

# Internazionalisten batzarra Askapenaren kontrako auziari erantzuna emateko



**Larunbatean, 11:00etan, Arbizuko udaletxean elkartasun internazionalistaren harira mugitzen den edo sentsibilizatuta dauden sakandar guztiak batzar irekira joateko gonbitea luzatu dute**

Aurki, uda aurretik izan daiteke, Espainiako Auzitegi Nazionalen Askapena erakunde internazionalistako bost kide epaituko dituzte. Haien artean dago Aritz Ganboa de Miguel arbazuarra. Beste kideen modura sei urteko espetxe zigorrari egin beharko dio aurre. Auzian ere Askapena bera eta beste erakunde batzuk legez kanporatu edo ez ebatziko du epaileak.

Auzi hori dela eta deitu da larunbaterako batzarra deitu dute. Ganboak azaldu digunez, "bere militantzia gauegunedo noizbait elkartasun internazionalistan kokatu duten pertsonen deialdia egitea erabaki dugu, batu gaitzen estatuaren errepresio tresna honi erantzuteko". Batzarra irekia da, "irekia zentzu guztietan. Batzarrean erabaki nahi dugu Sakanan

nola antolatuko garen, eta sakan-dar eta internazionalista gisa espainiar estatuaren estrategia errepresiboari erantzuna emateko erregimen dugun erabakiko da".

Ganboaren iritziz, "argi eta garbi dago ezker abertzalearen kontrako kolpe bat izateaz aparte, euskal internazionalismoaren kontrako kolpe bat dela. Hauda, Euskal Herrian elkartasuna ulertzeko modu batek min ematen dio estatuari. Estatuaren izaera ez demokratikoa agerian uzten du. Min ematen dion posizio bat kolpatzeko errepresioa erabiltzen du".

Sakanak izan duen izaera internazionalista "garrantzitsua" gogoratu zuen Ganboak, horren adierazle gisa Arbizu eta Marda edo Altsasu eta El Salvador arteko senidetzak, Saharar haurrak udan hartzen dituztenak jarri ditu adibide. Aldi berean, Askapenak hilaren 25ean Zarautzen antolatu duen ekitaldira joateko gonbitea ere luzatu du.

&gt;&gt; Etxarri Aranatz

## PPK aurrekontuak kritikatu ditu

Juan Antonio Extremerak gaitzetsi egin du aurrekontuetan preso politikoaren senideei, Etxerati, garraio laguntzetarako 4.000 euro bideratzea.



"Lotsagarria da diru publikoa senide horiei bideratzea, ez baitu etxarriarren interes eta beharren defentsarekin zerikusirik. Udabiltzari beste 3.000 euro bideratzea ere gaizki ikusi du popularrak: "foru erkidego gisa Nafarroak duen nortasuna kontuan hartzen ez duen erakunde bat finantzatzea zentzugabeke da".

Hizkuntza normalizaziorako udalak hartutako neurri bat ere begitan hartu du Extremerak. Kexu azaldu da kultur jardueretarako diru-laguntzen deialdiarekin, han jasoa baita diruz lagundutako ekitaldien publikitate euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz egin behar dela lehenari lehentasuna emanez. Baita, 16 urte-tik behar koei zuzendutako jarduerak euskaraz hutsean izan behar dutela. PPKo arendako hori "jarrera sektarioa" omen da.

&gt;&gt; Irurtzun



## Gazte Martxa Irurtzundik pasa zen

Ernai eta Aitzina gazte erakundeek antolatutako Gazte Martxa 2.000 bat gazte parte hartu zuten. Herria Mugarri lelopean Lekunberri eta Irurtzun arteko etapa apirilaren 3an egin zuten gazteek. Behin kanpin dendak jarri ondoren, Euskal Herriko prozesu eratzailaren eta nazio-arteko ordezkarien hitzaldiak, xamurtasun tailerra eta musikaz eta bertsoez gozatzeko aukera izan zuten gazteek. Hurrengo egunean Irurtzun utzi eta Berriozarrerako bidetara heldu zioten; Aberri Eguna-ekin batera Iruñera iristeko.

9 lagunendako  
**TAXIA**



948 500 388 / 629 428 025

IRURTZUN

unarte arakilgo udaia

**UHARTE ARAKILGO UDAL IGERILEKUETAKO TABERNA ETA JATETXEA ERRENTAN EMATEKO IRAGARKIA**

Baldintzen plegua: Uharre Arakilgo udaletxean dago interesdunen eskura, eta kontratazio-atarian ere bai.

Proposamenak aurkezteko tokia eta epea: Uharre Arakilgo udaletxean, 2015eko apirilaren 24ko 14:00ak baino lehen.

Uharre Arakilen,  
2015eko apirilaren 10an.

Javier Rodríguez Astiz,  
Alkate Presidente.



**LARRAZA ARDOAK**

Tel.: 948 460 014



Zugarreta 2  
Etxarri-Aranatz





SARE

# ATXIKIMENDUAK MANIFESTAZIOA ORAIN EUSKAL HERRIRA!

**ERAGILEAK:**

- SAKANAKO SORTU
  - SAKANAKO EH BILDU
  - SAKANAKO ARALAR
  - SAKANAKO GEROA BAI
  - ETXARRIKO EUSKO ALKARTASUNA
  - LAB SAKANA-LARRAUN
- Enpresa komiteak: Sapa Profiles, GH Guemma Manutencion, Aceros Moldeados, Sunsundegui, Magoteaux Navarra, Viscofan, Bierrik Fundazioa, Granjas Dos Hermanas, Sakanako Mankomunitatea
- ELA SAKANA
  - ETXARRIKO FUTBOL TALDEA
  - SAKANA BIZIRIK MT
  - ETXARRIKO GAZTE ASANBLADA
  - IRURTZUN-ARAKILGO GAZTE ASANBLADA
  - LARRAZPI GAZTE ELKARTEA
  - ALTSASUKO GAZTE ASANBLADA
  - URDIAINGO GAZTE ASANBLADA
  - ITURMENDIKO GAZTE ASANBLADA
  - BAKAIKUKO GAZTE ASANBLADA
  - ARBIZUKO GAZTE ASANBLADA
  - HESIAN musika taldea
  - SAKANAKO LIBRE
  - VENDETTA musika taldea
  - KAOTIKO musika taldea
  - TXIMELETA musika taldea
  - ALERTA GORRIA musika taldea
  - GATILLAZO musika taldea
  - XAPIRU trikitixa eskola
  - KARRIKESTU ELKARTEA
  - ETXARRIKO FALEJOLIEK
  - AHT ELKARLANA
  - SAKANAKO ERNAI
  - SAKANAKO IKASLE ABERTZALEAK
  - OLAZTIKO EMAKUMEEN BATZORDEA
  - SASOIA
  - IRURTZUNGO AIZPEA EUSKARA TALDEA
  - TXUIXOO ELKARTEA
  - ANDRA MARI IKASTOLAKO LANGILEEN ASANBLADA
  - BILGUNE FEMINISTA
  - ETXARRIKO TABERNARIAK
  - "MIRENTXIN" NAFARROA
  - ALTSASUKO FEMINISTAK
  - ZUBI ONDO ELKARTEA
  - HITZONDO KOMUNIKABIDEA
  - ASKAPENA
  - PIKUXAR ELKARTEA
  - IRURTZUN TV
  - AEK
  - ALTSASUKO FANFARREA
  - ZUBIONDOKO KANTU POTE OA
  - TARIMA BELTZA ANTZERKI TALDEA
  - GARRAXI IRRATIA
  - LARRAÑETA ELKARTEA
  - BAKAIKUKO BAKARREKO ETXEA ELKARTEA
  - EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ
  - OLAZTIKO SAN MIGUEL ELKARTEA

**NORBANAKOAK:**

- AITOR KARASATORRE, Mank.eko lehendakaria
- GURUTZE RODRIGUEZ, Olaztiko alkatea
- GARAZI URRESTARAZU, Altsasuko alkatea
- SEBAS ARISTIZABAL, Urdiaingo alkatea
- BITTOR GABIRONDO, Iturmendiko alkatea
- JON TABAR, Bakaikuko alkatea
- JOXI BAKAIKOA, Etxarri Aranazko alkatea
- MIREN MENDINUETA, Arbizuko alkatea
- JOSE RAMON GARIN, Lakuntzako alkatea
- JAVIER RODRIGUEZ, Uhartarako alkatea
- TXIKI IRIARTE, Irurtzongo alkatea
- PELLO BETELU, Arruazuko alkatea
- PELLO REPARAZ, musikaria
- FRAN URIAS, musikaria
- MAIDER ANSA, abeslaria
- LUISILLO KALANDRAKA, musikaria
- JAVIERO ETXEBERRIA, musikaria
- XABIER ALDAZ, musikaria
- IKER IGELTZ, musikaria
- JON ARRETXE, idazlea
- CASTILLO SUAREZ, idazlea
- JOSEBA BELTZA, bertsolaria
- ENEKO LAZKOZ, bertsolaria
- ARITZ MUNARRIZ, mendi korrikalaria
- ENEIDA CARREÑO, Guaixe eta Belexeko langilea
- JANYRA ARISTORENA, palista
- JOSE LUIS ERDOZIA, euskaltzaina
- AITOR ZUBIETA, pilotaria
- IGOR ARTIEDA, Andra Mari Ikastolako lehendakaria
- IBAN LOPEZ DE GOIKOETXEA, rally gidaria
- ENEKO GARTZIANDIA, musikaria
- JON MORZILLO, musikaria
- IBAI HERNALIZ, musikaria
- EDOR ZUBELDIA, musikaria
- NEREA MAZKIARAN, kazetaria
- ANABEL ARRAIZA, aktorea eta abeslaria
- JOSEBA SAN SEBASTIAN, musikaria
- OIER LAKUNTZA, bertsolaria
- OLATZ IRIZAR, euskara teknikaria
- JOSEBA EZKURDIA, pilotaria
- ARKAITZ IRIGOIEN, rally gidaria
- EGOI MARTINEZ, txirrindulari ohia
- PELLO URZELAI, Berriako kazetaria
- OSKAR LASA, pilotari oihia
- SAGRI MAULEON, sortzailea
- JUANPA AGIRRE, musikaria
- GORKA VERDUGO, txirrindulari oihia
- JUNE KINTANA, diska jaurtitzzailea
- MAIDER BETELU, kazetaria
- GOIZEDER BELTZA, aizkolaria
- MARIA SAEZ DE ALBENIZ, Guaixeko komertziala
- JOSE RAMON ANDA, eskulturgilea
- MIKEL MUNDIÑANO "Zato", musikaria
- IMANOL GOIKOETXEA, musikaria
- IÑIGO GOIKOETXEA, musikaria
- FLOREN NAZABAL, aizkolaria
- JUANJO ERDOZIA, aizkolaria

**APIRILAK 18 • LARUNBATA • 20:00etan • ETXARRI ARANATZ**





## FUTBOLA

**EGIARRETA ETA ZALDUA LIDER:** Elomendiko Futbol Txapelketan, A multzoko liderra dugu Egiarreta eta B mailakoa Zaldua.

Larunbatean Bidezarra izango du aurkari Egiarretak eta lidergoa dute jokoan Zalduak eta Maldarteak.

## Aizkora

## Resano Banakako Urrezkotik kanpo

Hasi da Banakako Urrezko Txapelketa. B multzoan kanporaketa bat jokatu zen larunbatean Zegaman. 4 aizkolarari lehiatu ziren, Jokin Alkizaletel, Jalberdi Txikia IV, Aitor Urteaga eta Iban Resano. Laurek 45 ontzako enborra erlojuz kontra erdibitu behar izan zuten, eta abiadura proban bi 54 ontzako erdibitu zituzten. Bi aizkolarari onenek, Jokin Alkizalete eta Aitor Urteagak, finala jokatu zuten eta Jokin Alkizalete izan zen onena, hurrengo fasera pasakodena. Iban Resano laugarrena sailkatu zen.

## Atletismoa

## Sakandarrak 27. Lekunberriko Leguan

Francisco Codon 22.a sailkatu zen

Sakandarrak 27. Lekunberriko Leguan (6.040 km):

1.	Marcos Yaniz	19:13
22.	Francisco Codon	21:49
28.	Mikel Berdud	22:45
43.	Asier Estarriaga	25:09
47.	Santi Agirre	25:33
51.	David Trevejo	25:51
59.	Ismael Lpz. de Goikoetxea	27:06
88.	Javier Ramirez de Alda	38:13

Igandean hitzordu polita zuten korrikalariak, 27. Lekunberriko Legua-Memorial Txikito Arruiz lasterketa jokatu baitzen. Legoa batek dituen 6.040 metreri egin behar izan zieten aurre proba nagusian parte hartu zuten ia 90 korrikalariak. Azkarrena Marcos Yaniz (19:13) izan zen. Zazpi sakandar lehiatu ziren eta Francisco Codon irurtzundarra izan zen lehena, helmugara 22. postuan iritsi eta gero (21:49).

## Areto futbola

## Magnaren gol festa

Irurtzango taldeak 7-0 irabazi zion Prone Lugori

Imanol Arregiren mutilek garaipe erosoak lortu zuten dagoeneko mailaz jaitsi den Prone Lugoren kontra. Magnak partida serioa jokatu zuen eta Prone Lugok apenas urduritu zuen talde berdea. Imanol Arregik minutu gutxien jokatzeko duten jokalariei aukera eman zien, eta hauek erantzun bikaina eman zuten. Roberto Martil (2), Javi Saldise (2), Marc Tolrá, Lopez (bere atean) eta Mario izan ziren Magnako golegileak.

## Kontentu

“Partida oso erosoak izan da. Taldeak serio jokatu du partida guztian. Ez dugu tontakeriarik egin

## Pilota



## Irurtzango 23. Pilota Txapelketa abian

Senior mailako 24 bikote lehiatzen

Aurten 23. edizioa bete du Irurtzango Pilota Txapelketa. Guztira senior mailako 24 biko lehiatuko dira, puntako pilotariak, afizionatuen mailako onenak. Finalak Irurtzango Trinitateko festetan jokatu dira. Gaur bigarren jardunaldia jokatu da.

## Asteburuko emaitzak:

Lansalot-Bergera (Irurtzun) **22** / Maiz-Aranburu (Bear Zana) **17**  
Olano-Azanza (Zugarralde) **15** / Lopez-García (Oberena) **22**  
Apaolaza-Alberdi (Urretxu) **11** / Bakaikoa-Medina (Erreka) **22**  
Aznarez-Mateo (San Miguel) **18** / Labaka-Erostarbe (Zazpi-Iturri) **22**

## Asteburukoa

**Ostiralean, 19:15ean:**  
Etxabarri-Aldutxin/Iriarte-Labaka  
Azpiroz-Ugalde / Quina-Olaizola



## Irurtzun Berria txapelketan ariko da

Asteburuan hasikoda 12. Berria Pilota Txapelketa. 16 pilota klubek hartuko dute parte. Irurtzun igandean sartuko da lehiatzen; Gasteizko Txukun Lakua izango du arerio finalzortzirenetan, Hernanin.

## Pilota

# Zubieta finalera

Nahiz eta Zabaleta partidako onena izan, Berasaluzek eta Zubietak irabazi zuten finalerdia

Finalerdi ikusgarrian, esperientziak balantza bere alde eman zuten eta Berasaluze II.ak eta Zubietak lortu zuten Bengoetxearen eta Untoriaren kontrako Binakako finalerako sailkatzea, Ezkurdia eta Zabaletari 22-15 irabazita.

Zubietaren ezker eskuak nola erantzun zuten, hori zen partidako kezketako bat. Izan ere, Zubietak atzerapena eskatu zuten, aurreko partida eskuak justu zituela despiditu zuelako. Baina enpresek ez zioten baimenik eman. Jokatzea erabaki zuten etxarriarrak, eta, egia esan, sekulako partida jokatu zuten, Zabaleta atzelari handiari erantzuteko gai izan zelako. Eta hori asko esatea da, Zabaletak izugarri jokatu zuelako. Berasaluzek eta Zubietak ez zuten aparteko partidarik jokatu, baina irabazteko gai izan ziren, beteranotasunak ematen duen esperientziagatik. Ezkurdiari eta Zabaletari heldutasun gehiago falta izan zitzaie, lehenengo-

## Ezkurdia-Zabaleta txapelketa bikaina



Nahiz eta finalera ez heldu, sekulako txapelketa egin dute Ezkurdiak eta Zabaletak. Txapelketako partidaguztiak jokatu dituen bikote bakarra izan da beraiena eta sekulako maila eman dute. Etxarregoa izan da txapelketako atzelari onena.

## Zubieta: “Oso pozik nago”



Finala Bilbon jokatu da apirilaren 26an. Sarrerak internetez saldu dituzte www.asegarce.com eta www.aspepelota.com web guneetan. Pozik dago Zubieta. “Eskuak gaizki, ez zidaten atzerapena onartu eta horrela jokatu nuen finalerdia. Baina, zorionez, Ezkurdiari eta Zabaletari eusten jakin genuen eta azkenean finalerako sailkatu gara. Aste gogorra izan zen eta oso pozik nago finalera heltzeagatik” azaldu digu etxarriarrak. Aitor Zubietaren eskuak ez daude, oraindik, behar bezala. “Eskuina nahiko ongi daukat baina ezkerrean justu. Logroñon tratamendua hartzen ari naiz, aste honetan horrela jarraituko dut, asteburuan suabe pilotatzen hasiko naiz eta ea hurrengo astean normal entrenatu ahal dudan” adierazi digu. Finala gogorra izango dela jakitun da etxarriarra. “Kontrarioak oso gogorrak dira, baina final batean ez da gutxiagorik espero. Oinatz eta Alvaro ikusgarri daude. Guk gure jokoa egitera aterako gara, bestela jai daukagu” gaineratu du. Etxarriarrak bere zaleak alboan izan ditu eta jakina, finalean ez diote hutsik egingen. “200 sarrera eman zizkidan eta berehala agortu dira, badakit autobusa prestatzen ari direla eta Etxarriko pilotazaleak eta lagunak han izango ditut. Giroa oso ona da eta asko pozten nau horrek nabarmendu du. Gainera, finala irabazi edo ez, ospakizuna egingen dute Etxarri. “Txapela ekarri edo ez, afaria eta ospakizuna egingen dugu. Berehala jarriko dituzte txartelak salgai” azaldu digu. Aste honetan komunikabideak atenditzen nahikoa lan izango du. “Ea bizpahiru egunetan denak atenditzen ditudan, pozik gainera, eta gero finalean zentratzen naizen”. 2010ean Xalarekin txapela ekarri zuen. Ea aurten bigarrena iristen den.

ri batez ere. Arbizuarrari urduri sumatzen zitzaion. Ezzen erosoegon eta akats potoloak egin zituen. Zabaletak aurreko koadroetara joan behar izan zuten sarritan Ezkurdia laguntzera, partidaren zama ia gehiena bere gain hartu zuten eta egindako lan izugarriarengatik lehertuta bukatu zuten. Bera izan zen, inolako zalantzarik gabe, partidako onena, baina horiezzen nahikoa izan partida irabazteko.

Berasaluzek eta Zubietak alde batera zuten hasieratik (7-2). Ezkurdiak jokaldi bikainak akats han-

diekin tartekatu zituen. Aurreko koadroetan abantailarik ez zutela jakitun, Zubieta zigortzen hasi ziren Ezkurdia eta Zabaleta. 13-14 aurreratzea lortu zuten sakandarrak, baina Berasaluzek eta Zubietak eusten jakin zuten. Partida bukaeran Zabaleta nekatzeko hasi zen eta Berasaluze aurreko koadroetan pilota aurkitzen hasi zen. Hor hasi zen bizkaitarraren erakustaldia. Harengantxoekin, dekadekin eta pilotakadekin 22ra iritsi ziren Asegarcekoak, eta 22-15 gailendu ziren.

948 563 199  
ALTSASU

# COROSTI

# LIKIDAZIOA

%30
%40
%50



### Pablo Urtasun, Japan Protourreko liderra

Igandean Japan Protourrek bigarren proba jokatu zen, Ibukiyama gainean despeditzen zena. Team Ukyoko Oscar Pujolek irabazi zuen, eta 25 segundora beretaldeke Pablo Urtasun urdiaindarra sartu zen. Ibukiyamako igokerak 11 km ditu eta 5 km-ren faltan Urtasunek eraso jo zuen, baina Team Matrixek bere saiakera zapuztu zuen. 3 km-ren faltan bere taldekide Oscar Pujol izan zen saiatu zena. Urdaindarrak Pujolen lana babestu zuen tropelean eta Pujolek garaipena lortu ahal izan zuen. Urtasun bigarrena iritsi zen helmugara. Egun Japan Protourreko liderra da Pablo; Pujol da bigarrena.

#### AURRETIK GARAIPENA

Apirilaren 5ean Japoniako lasterketa nazionala irabazi zuen Pablo Urtasunek, bere lehen garaipena Team Ukyorekin. Urtasun lehena izan zen Oscar Pujolen eta Yukihiro Doi txirrindulariaren aurretik.

#### ERBITREN PARIS-ROUBAIX

Igandean jokatu zen 119. Paris-Roubaix. Degenkolbek irabazitako proba despeditzealortu zuen Imanol Erbitik. 64.a izan zen, 7:50era.

### Rosonek bosgarren garaipena eman dio Rural Kutxari

Espainiako Kopako 23 urtez azpiko lider berria da

Igandean Espainiako Koparako baliagarria den Balentziaga Memoriala jokatu zen Eibarren. Rural Kutxa talde sakandarreko Jaime Rosón txirrindulariak azken portuan jo zuen eraso, Ixuan, eta bakarrik iritsi zen helmugara. Espainiako Kopako 23 urtez azpiko sailkapeneko liderra da Rosón. Taldeko zuzendari Alberto Mazkieran kontentu dago taldearen lanarekin.

### Txirrindularitza



## Euskadiko Master Txapelketa Arbizun

Igandean, 10:00etan abiatuko da Arbizuko III. Master Saria, aldi berean Euskadiko Txapelketa izango dena

masterarbizu@gmail.com

Arbizuko proban izena emateko (13 euro). Egunean bertan Arbizun eman ahaliko da izena, 9:00etatik 10:00etara, udaletxean (15 euro).

Arbizuko master mailako txirrindularitza proba hartuko du igandean. Goizeko 10:00etan abiatuko da Arbizuko III. Master Saria, aldi berean Euskadiko Txapelketa izango dena eta Nafarroako Master Koparako puntuatuko duena. Aralar Txirrindularitza Taldeak antolatuko du lasterketa, Arbizuko udalaren eta Arbizuko taldeen laguntzarekin.

Seniorrak eta master 30, 40, 50 eta 60 kategoriako txirrindulariak ariko dira proban. Euskal Herriko Txapelketa denez, puntako txirrindulariak espero dira. "Puntakoak eta besterik gabe zaletuak direnak" azaldu digu Aralar Taldeko Iratitz Goñik. Euskal Herriko Txapelketa denez, ibilbidea aldatu eta luzatu dute, gogortasun gehiago emateko. "Igandean ere Arbizuko landare eta lore azoka izanen da eta kolore gehiago izango du probak, giro politagoa izango da" gaineratu du Goñik.

Zazpi-zortzi sakandar ariko direla aipatu digu Goñik. "Arbizutik Alfredo Amillano eta ni, Irurtzundik Alex Maya eta Angel Moreno, Altsasutik Mikel Sarasola, Urdaindik Iker Zabaleta, azken proba irabazi zuena... eta norbaiten bat gehiago ere animatuko da".


#### Ibilbidea

Arbizutik aterata, Lizarragabengoara iritsi eta Zarapiko zubitik

Etxarri Aranatzerraino helduko dira. Handik Arruzuko bidegurutzeraino joko dute, eta Lakuntzako estazio bidetiketa industrialetik barna atzera ere Arbizura helduko dira, Lizarragabengotik berriro Etxarriaraino heltzeko. Orduan Irurtzuneraino helduko dira txirrindulariak, Izurdiagatik barna Errotzera heldu eta bertatik Urrietzalaraino iristeko. Urrietzolatik Etxarreneira aterako dira eta Arbizuraino jarraituko dute, Unanutik eta Dorraotik Lizarragako Kateko bidegurutzeraino igotzeko. Handik Lizarragaraino helduko dira eta Etxarriaraino iristen dira. Arbizun helmuga izango dute Master-50 eta Master-60 mailakoek. Aldiz, gainontzekoek aurrera egingo dute, Lizarragaraino helduz. Unanutik barna Arbizuko helmugara iritsi eta bertan despedituko da proba.

### Aralar Txirrindularitza Taldearen aurkezpena

Larunbatean, 11:00etan, Leitza: Lakuntzan egoitza duen Aralar Txirrindularitza Taldeak 2015eko aurkezpena egingen du larunbatean, 11:00etan, Leitza-ko zinean.



Aramendia Agurainen txapeldun.

### Burundako Etxeberria eta Aramendia Nafarroako selekzioan

Igandean, Valladoliden, Federazio Trofeo kolehen lasterketa jokatu zen. Nafarroako junior mailako selekzioarekin Quesos Albeniz taldeko Asier Etxeberria eta Eneko Aramendia aritu ziren. Helmugara tropelean sartu ziren.

#### ENEKO ARAMENDIA GARAILE AGURAINEN

Apirilaren 5ean Agurainen jokatuako XL. Sallurtegi Saria Quesos Albenizeko Eneko Aramendia irabazi zuen, helmugarabakarrik helduta (2:08:23). Proba Euskal Herria Torneoarako baliagarria zen. Bere taldekide Asier Etxeberria 4.a sartu zen, 11 segundora, eta mendiko saria irabazi zuen. Irabiako Izai Mauleon 76.a izan zen, 6:18ra, eta beretaldeke Gorka Arbizu 97.a, 7:53era. Quesos Albenizeko Juan Alberto Jimenez 104.a sartu zen, 8:07ra, eta Aritz Irigoien 111.a, 8:41era.

#### ARBIZU 7.A LIZARRAN

Larunbateko juniorren Lizarrako lasterketa Lizarteko Carlos Ruizek irabazi zuen (1:55:30). Irabiako Gorka Arbizu 7.a sartu zen, tropel nagusian, 2:36ra, eta Nestor Baroja taldekidea 17.a, denbora berean. Quesos Albenizeko Juan Alberto Jimenez, 20.a izan zen eta baita Irabiako Izai Mauleon ere, 23. postuan. Irabiako Javier Lopez 34.a izan zen, 4:34ra, eta Quesos Albenizeko Alex Uncilla 43.a eta losu Gabirondo 44.a, biak 5:37ra.

#### ETXEBERRIA 5.A ATARRABIAN

Atarrabiako kadeteen proba Zirunako Oier Lazkanok irabazi zuen (1:35:56). Q. Albenizeko Josu Etxeberria 5.a izan zen, 3 segundora. Tropelea 24 segundora sartu zen. Bertan zeuden Quesos Albenizeko Oihan Vinagre eta Ailetz Lasa, 12.a eta 13.a, eta Irabiako Ander Rosado, 61.a. Josu Jaka 69.a izan zen, 3:25era, eta Imanol Galarza 80.a, denbora berean. Quesos Albeniz talde onena izan zen.

### Futbola

#### FEDERATUTAKO TXAPELKETA PREFERENTE MAILA. 1. multzoa

28. JARDUNALDIA

#### LAGUN ARTEA 2 - LAGUNAK 3

Berehala aurreratu zen Lagunak. Bakaikoak berdindu zuen baina atzera ere Lagunak gola sartu zuen. Pitik bina berdindu zuen baina Lagunak hirugarrena sartu zuen eta horrela despeditu zen lehia, Lagun Artea jaitziera postuetatik 3 puntura dagoela.

Sailkapena >>

1. Mendi .....	62 p
14. Lagun Artea .....	24 p

Asteburuko jardunaldia

AVANCE EZKABARTE - LAGUN ARTEA (Igandean, 17:00etan, Arren)

#### ERREGIONAL MAILA. 4. multzoa

28. JARDUNALDIA

ETXARRI ARANATZ 4 - UHARTE B 3 BURLADES 4 - ALTSASU 2



Etxarri preferente mailara igo da.

Liga despeditzeko sei jardunaldiren faltan, Etxarri liderrak mailaz igotzea lortu du, Itaroa Huarteri 4-3 irabazita. Alaineke, Javierrek (2) eta Asierrek sartu zituzten golak. "Eskerrak jokalariei, taldea sortzen duten guztiei eta zelaira gerturatzen diren zale guztiei" adierazi du Etxarri. Bestalde, Burlades aurreratu zen Burlatan. Altsasuk bi penalty huts egin ondoren, Nietok berdintzea eta Gorkak 1-2 aurreratzea lortu zuen. Baina Burladesek hiru gol sartu zituen, 4-2 irabaziz.

Sailkapena >>

1. Etxarri Aranatz .....	65 p
9. Altsasu .....	41 p

Asteburuko jardunaldia

UNIV. NAVARRA - ETXARRI ARANATZ (Igandean, 18:30ean, Iruñean)  
ALTSASU - ULTZAMA (Larunbatean, 16:45ean, Dantzalekun)

### Futbola

### Kimuen Futbol 8 Topaketak bueltan

Mank-ek antolatutako topaketetako 14. jardunaldia hartuko du Altsasuko Dantzalekuk.

#### 14. jardunaldia

Igandean, Dantzalekun

10:30ean: Urdaian - Tipi Tapa

11:30ean: Txartel - Sayas

11:30ean: Mediolanum - Kaixo

12:30ean: Arbizu - Dantzaleku

12:30ean: Lagun Artea - Sutegi

**Arbizu**  
Hesteki eta pateak

www.embutidosarbizu.com  
Utzubar Industrialdea, E kalea 1-2 • ARBIZU tel. 948 46 06 28 fax. 948 46 10 16

**Igoa**  
arraindegia

948 460 111 • Arkuetabide kalea • Etxarri Aranatz



## Automobilismoa 4x4



Jendetza bildu zen proba jarraitzera. Pilotu sakandarrak izan ziren onenak.

## Jon Sakana 4x4ko txapeldun

28 ibilgailuren artean maila bikaina eman zuten sakandarrek, Jon dorrobarrak txapelduna izan baitzen eta Josu Berastegi urdiaindarrak bigarrena

Larunbatean eta igandean jokatu zen Sakana 4x4 taldeak antolatutako Sakana 4x4 Topaketa. Eguraldia lagun, beste behin arrakastatsua izan zen proba. 28 todo terreno animatu ziren proba ikusgarrian aritzera eta sekulako ikuskizuna eskaini zuten. Sakana 4x4 taldeko Jose Luis Lakuntza "Risitas"-ek adierazi duenez, 3.000 pertsonatik gora bilduko ziren, lasai asko. "2.000 sarrera salgai jarri genituen eta bukatu zitzaizkigun. Gero jende gehiago sartu zen. Gaueko proban eta igandekoan bildu zirenak kontatuta... igual 4.000 iritsiko ginen". Giroa, bikaina, eta todo terreneok eskaintako ikuskizuna, baita ere.

Antolakuntzak oztopoz, zuloz eta urez betetako 6 gune prestatu zituen Arbizuko industrialdean. Todo terreneok larunbatean norabide batean gurutzatu behar zituzten eremuak, eta, igandean, kontrakoan. "Pilotuen lana ikusgarria izan zen, eta Sakanako ena zer esanik ez. Hemengo maila ikaragarria da, geroz eta handiagoa" nabarmendu du Risitasek. Horren erakusle, Jon dorrobarrak irabazi du aurtengo Sakana 4x4 topaketa, eta Josu Berastegi urdiaindarrak bigarrena. Podiuma Xabier Oñaederra "Narruk" osatu du. Jonek gupilak jaso zituen saritzat, Josuk erreminta kaxa eta Narruk zintzak.

Aipatutako ez gain, Arbizuko Mikel eta Altsasuko Unai ere lehiatu ziren Arbizun. Risitasek kontatu digunez, zaleei izugarri gustatu zitzaizkien aurten prestatutako guneak. "Urez betetako eremu gogorak, lohia, malda ikaragarriak... gozamina izan da" azpimarratu du arbizuarrak. Guztia antolatzen Sakana 4x4 taldearekin 26 pertsona inguru aritu ziren lanean.

Aurki Ilunberriko eta Astiga-



Ezinean geratu ziren asko.

rrako probak jokatu dira. Ekainaren 27an atzera ere Arbizu izango da 4x4 ibilgailuen topagunea, San Juanetan.

### Gauekoa

Gaueko proban 14 ibilgailuk hartu zuten parte. Ikusleak ere, majo hurbildu ziren. Zaldibiko Aritz izan zen onena, Ataungo Gamoso eta Altsasuko Unairen aurretik.

### Isunaren zain

Antolakuntzak 2 euroko sarrera kobratu zuen. "Proba hau antolatzeko 7.000 euro inguru kostatzen zaigu. Aseguruak soilik 1.700 euro balio ditu eta horri alokairuak, makineria, makineria ekartzeko garraioa eta beste hainbat gastu gehitu behar zaizkio. Horrela, 2 euroko sarrera kobratzen dugu topaketetan" azaldu digu Risitasek. Badirudi batzuei gehiegizkoa iruditu zitzaizkela eta hesituta itxita zegoen eremu batetik sartu ziren proba jokatzeko eremura. "Enpresak udaletxean kexa jarri du, hesia apurtu diotelako. Ziurrenik orain asegurutik isun majoa etorriko zaigula. Ikusle gehienak ongi portatzen dira eta ez dute inolako arazorik jartzen, baina badaude batzuk, gutxiengo bat, euren jarrerarekin kalteak besterik ekartzen ez dutenak. Ea halakorik ez den errepikatzen" gaineratu du arbizuarrak.

## Mendia

## 400 mendizale Hiru Mendi Zerretan

Altsasuko Mendigoizaleak taldeak antolatuta, larunbatean Hiru Mendi Zerretan mendia ibilaldi luze eta ez lehiakorra burutu zen. 389 mendizalek eman zuten izena, baina, azkenean, 400 mendizale pasatxok burutu zuten. Proba Euskal Herriko mendia ibilbide luzeen zirkuituan sartua zegoen, baina aurten ez zuen Nafarroako Zirkuiturako puntuatzen, Ameskoetako Martxa egun berberean jokatzeko zelako.

Proba nagusiak 48 km eta 2.700 metroko desnibela zuen, eta laburrak 26 km eta 1.200 metroko desnibela. Gehienek, %70-ak, proba luzeena hautatu zuten. Ibilteko eguraldi elegantea zegoen. Mendizale batzuk korrikan osatu zuten ibilbidea, 5 ordu ingurutan, baina batez bestekoa 8 ordukoa izan zen.

Hiru Mendi Zerretan Urbasa, Altzania eta Aralar lotu zituen. Hasieran Altsasutik Urdiainera jo zuten mendizaleek, Portuazpitik Urbasara igotzeko. Bargagainera (1.153 m) jo zuten segidan, Gainsolera heldu eta gero Ziordira jais-teko. Bertan otordu ederra zegoen prestatuta. Ondoren Kipular igo eta Orobe, Sorozarreta eta Balankalekuraino jo zuten. Intxusburu-

tik Saraberaino iritsi eta bertatik Altsasuko helmugaraino iritsi ziren mendizaleak.

Mendizale gehienek ibilbidearen edertasuna eta antolakuntza bikaina azpimarratu zituzten. Tamalez, bada egindako lana zapuzten ahalegintzen dena, Ziordian norbaitek ibilbidea markatzeko zintak kendu eta ibilbidea aldatu baitzuen. "Honek arriskua sortzen du, norbait galdu ahal delako" nabarmendu zuten antolatzaileek. Zorionez, ez zen arazorik egon eta arrakastatsua izan zen ibilbidea.

### Sakanako Ibilaldia maiatzaren 9an

Aurten maiatzaren 9an izanen da Irurtzongo Iratxok antolatutako 26. Sakanako Ibilaldia. Bi ibilbide izanen dira aukeran. Ibilbide luzea, San Donato, San Migel eta Trinitatea ermitak batzen dituen (54 km, 3.300 m desnibela), eta ibilaldi laburra (27,5 km, 1.344 m desnibela). Izena ematea zabalik dago [www.iratxoelkartea.com](http://www.iratxoelkartea.com) web gunean.



Mendizaleak Orobe aldean.

## Automobilismoa



Flores Urbasako igoeran.

### Garikoitz Floresen erakustaldia Opakuan

Lakuntzarak 3.a sailkatu zen 9. Opakuako Igoeran

Opakuako portua auto zalez bete zen larunbatean, 9. Opakuako Igoera jarraitzera. Ia 50 autok hartu zuten parte proban, tartean pilotu sakandarrak. Proba Aitor Zabaletak irabazi zuen (Lola, BMW), primerako denbora ezarriaz: 2:24.451. BRC Evo barketarekin lehiatu zen Garikoitz Flores lakuntzarrak lan bikaina egin zuen eta podiumera igo zen, hirugarrena sailkatu baitzen (2:33.152).

Gainontzeko sakandarrei dagokienez, Javier Goikoetxea (Citroen Saxo, VTS) 29.a sailkatu zen (3:05.139), Andoni Lopez de Sabando (BMW 320i) 30.a (3:06.903) eta Mikel Mendinueta (Citroen 205 GTI) 36.a (3:13.650). Iban Lopez de Goikoetxeak (Renault 5 GT Turbo) proba utzi behar izan zuen.

XXVI. SAKANAKO  
IBILALDIA  
IRURTZUN

2015eko MAIATZAREN 9a

- IBILBIDE LUZEA: IRTEERA: 06:00  
54 Km. 3.388 mko desnibela
- IBILBIDE MOTZA: IRTEERA: 07:30  
27,5 Km. 1.344 mko desnibela

Izenak ematea apirilaren 15etik maiatzaren 6a arte gure web orrian eta ibilaldiaren egunean.

[www.iratxoelkartea.com](http://www.iratxoelkartea.com)  
iratxomendi@gmail.com

IRATXO ELKARTEA, LABURPELAKO ZENTROA, NAFARROAko Gaitasuna, SIRA, Koiiku, Mark, FUNDACIÓN CAJAPUENSA, GUAIXE.EUS, beleixe, Noticias



## IGO literatura bidaiara

**Egitasmoak euskarazko literatura sustatu eta liburuak merkeago erosteko aukera ematen du**

**L**iburuaren Nazioarteko Eguna heldu den ostegunean ospatuko da. Eta egun seinatatu horretan abiatuko da Irakurri, Gozatu eta Oparitu egitasmoa, garagarriaren 30era arte iraunen duena. Topaguneak, eskultzaileen federazioak antolatu du IGO egitasmoa euskara elkarrean, liburutegi publikoen eta liburu-dendekin batera; Sakanako Mankomunitatea babeslea da.

IGO egitasmoaren izeneko hizki bakoitzeko pauso bat eman beharko du harretan interesa duenak. Lehenik, liburutegi publiko-ara joan eta euskarazko liburu bat maileguan hartu behar da. Hura irakurriz gozatu ondoren, liburutegira bueltatzerakoan fitxa bat bete eta trukean erosketara txekia bueltan jasoko du parte-hartzaile-

ak. Hura Mar-txueta (Irurtzun), Beriain (Arbizu), Kaxeta (Etxarri Arantz), Arkatz eta Liburunda (Altsasu) liburu-dendetan aurkeztuta euskarazko liburu bat merkeago erosteko aukera izanen da. Erositako liburua senide bati, lagun bati edo norbere buruari oparitu ahal dio.

**%25eko eta %50eko deskontua**

Liburuaren erosketara txekia %25eko beherapena izanen dute egitasmoaren parte-hartzaileek. Sakanako euskalgintzako taldekideek (Bierrik fundazioko babesleak, esaterako) eta mintzakideak liburuak prezio erdian erosteko aukera izanen dute. Txartelak garilaren 5era arte erabil daitezke liburu-dendetan.



## Agurtzane txikiarena

**Dagoeneko bi bat aste egin ditu liburu-dendetan Agur, agur (Erein) Castillo Suarezren liburu berria**

**S**uarezren haur liburu guztietan bezala, neskato bat da protagonista, nahiz eta "kasu batean, protagonistari izenik ez zion eman eta ilustratzaileak mutiko bat egin zuen". Eta bai, protagonista ilegorria da. "Ebelina Mandarinak idatzi nuenean eskatzen zuen. Morkotsek kasgorria egin du, baina ez nik eskatuta. Nire protagonista gehienak kaxkagorriak dira".

Oraingoan Agurtzane da protagonista, "baina hain txikia denez, Agur deitzen eta agur, Agur esaten diote". Suarezek esan digunez Agur egoera "txar" batean dago: "gurasoak banatu egin dira eta nahiko deseroso dago. Ez da egoera berri- ra ohitzen. Momentu txarretan, haserretzen denean, gaizki dagoenean... hain txikia denez, badu abilezia bat: ezkutatzea". Indarra edo laguntza beste batzuk emanen diote, Ebelinarekin gertatu bezala.

Iñigo Aritza ikastolarekin lotura duten bi pertsona aipatzen ditu idazleak liburuan: "Higinia zena eta andereño Idoia. Kasu honetan ateratzeko baimena eskatu nien Higinia-aren familiari eta Idoiari". Berak ikasizuen ikastola agertzen dela eta Suarezek esan digu lan guztiek "autobiografikotik pixka bat" dutela.

**Morkots ilustratzaile**

Zazpi lanetan beste horren beste ilustratzailearen irudiek laguntzen dute Suarezren haur literaturako lanak. Azken honetan Jose Mari



Morcillo, Morkots, altsasu- arria izan da ilustratzailea. "Idoia eta Higinia ezagutzen zituenez egokia zelako proposatu nion argitale- txeari eta onartu egin zuten". Ilustratzaileekin lan egitean "gaizki moldatzeko" aukerarik ez duela azaldu digu idazleak: "gure lana bukatzean hasten da haiena. Gu ez gara horretan sartzen. Editore- ak koordinazio lana egiten du. Ilustrazioak argitale- txeari dizkit eta ez Morkotsek, nahiz eta laguna eta ezaguna izan".

Ilustratzaile aldaketek galde- tuz, "ez naiz batere fidela" azaldu

du barrez Suarezek. Argitu digu- nez, bi gauza egiten saiatzen da: "ilustratzailea aldatzea. Baita argi- taltetxea ere". Hautaketaz galdetu- ta argitu du: "kasu batzutan auke- ratu dezakegu, baina beste batzutan argitale- txeari erabakitzen du zein jarri".

Joan den urtean Peru Abarka saria irabazi zuen Suarezek *Zerua berun* (2014, Ibaizabal) lanarekin. Maite Mutuberriaren irudiekin argitaratu zen helduendako album ilustratua, baina liburu-dendetan haur literatura sailean dago.

+[www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus)

## Sagasetak elizari buruzko liburuak aurkeztuko du

**Gaur, 20:00etan, Urdiaingo herriaren etxeko auzoan**

**M**igel Angel Sagasetak Urdiaingo elizaren inguru-ko liburuak idatzi du eta gaur aurkeztuko du. Artxiboetan jasotako informazioarekin ondu du liburuak ikertzaileak. Aurretik Luzaideko bolanten inguruko edo- ta Etxarri Aranzako Kontzezio ermitari buruzko liburuak argi- taratuak ditu Sagasetak. Liburu- a-



ren aurkezpena ere Urdiaingo toponimiaren berreskuratzelana- ren berri emateko baliatuko da.

## bazterretik

**Juankar Mugartza**

### Mundua jira-biran

Eguzkia lurraren inguruan itzulika zebilela uste genuen Galileok kontra-koa esan zigun arte. Jira-biran genbiltzan oraindik ere, baina orain- goan gu eguzkiaren inguruan... eta hori esateagatik ia erre zuten! Kontu- z ibili behar dugu nor noren ingu- ruan bueltak dabilen esaten dugu- nean, sorgintzat hartzen bagaituz- te... akabola!

Baina horixe da egia, jira-biraka gabiltzala denok, batzuk egia- ren inguruan, beste batzuk gezurra- nean, diruaren jainkoaren morroi. Txikitari oso gustuko nituen bira-

ren zuten ateak, eta oraindik ere, noizean behin, holako baten bataur- kitzen dudanean, jolas egiten dut eta buelta osoa ematen dut haur bat banintz bezala. Sartzean pre- saka egin behar duzu ez baduzu zartako bat jaso nahi azkar-azkar datorren atearen hurrengo hega- larekin. Azken aldi honetan, ordea, beste joko batez hasi da hitz egi- ten nire txikitako ate birakari guz- tien memoria onaren kalte.

Oraingoan ez dut parte hartzen, bai- na jende askoren gustuko delako ematen du. Jokoaren arauak ere erra- zak dira: politikaria zaren bitarte- an enpresa bati (elektrika bati edo ta-

banketxe bati, adibidez) izugarri-ko boterea eta dirutza ematen di- zu; gero, zure politikari egunak bukatzen direnean enpresa, elek- trika edo ta banketxe horretako goi kargudun bilakatzea besterik ez duzu lehen baino aberatsagoa eta ustelduagoa izateko. Txin-txin diru- ren hotsa.

Abiadura Handiko Trena, Goi Ten- tsioko Linea Elektrikoa, Los Arco- seko (korto-) Zirkuitoa, Haustura Hidraulikoa ("Fracking"-a), "Nava- rra Arena" erraldoi faraoniko zen- tzurik gabekoa, Nasipa, CAN, kon, Kun-kun... eta bestelako txantxu- lloak "revolving door" kontzeptua-

ren frogak dira eta mundu hone- tan zer lotsa gutxi dagoen erakus- ten digute.

Hautakundeak datoz. Behin betiko- z noraezean itzulika joateari uzteko garaia izan daiteke. Erregimeneko- aktandakadabiltza, Nafarroako agin- tean daude betidanik eta orain zu, eta gero ni, guri adarrak jotzen ari dira eten gabe, unibertsoaren lege naturala balitz bezala.

Jose Maria Satrustegik liburu inte- resgarri bat idatzi zuen 1975ean, Euskaldunen seksu bideak. Balio handiko dokumentu etnografikoa (datuak jasotzen Amaia Oiarbidek eta Enrike Zelaia laguntza handia

eman zioten). Liburuan, sexuaz aparte, gure herrian biraka ibiltze- ko ohituraz hitz egiten da zenbait pasartetan; adibidez, Urdiaingo tri- pako mina zeukaten haurrek San- ta Engrazia ermitari lau buelta ematen zioten. Uharteko Arakilen, hiru buelta San Bartolomekoari haurrak ongi ibil zitezten. Etxarrin, Andra Mariri bi buelta. Altsasun, lau bider lau (hots, hamasei!) San Juan- go basilizari, eta ez dakit zertara- ko. Urbasako Santa Marinari, buel- ta batzuk senargaia aurkitzeko. Eta guk, zenbat buelta eman beharko ditugu oraindik ere egoera honi buel- ta emateko?



# Txistularien eta haien lagunen kontzertua

**Larunbatean, 20:00etan, Altsasuko Iortia kultur gunean 20 txistulari, metal boskotea, abeslariak baxua eta dantzariak ariko dira**

**B**urundar Txistulariek joan den urtean estreinakoz kontzertua eskaini zuten eta primerakoa izan zenez, hura bukatu bezain laster emanaldi berria prestatzen hasi ziren. Juan Pablo Urizarrek esan digunez, “txistua kalean ongi errotua dago, festetan, kalejiretan. Emanaldi hauekin txistuaren beste kontzeptu bat eman nahi dugu. Areto itxian, kontzertu baterako ere balio duela txistua”. Eta gaineratu du: “txistua beste musika tresnekin uztartuz sortzen diren akonpainamendu atseginekin gozatzeko gon-

bitea da”.

Burundar Txistulariak hamaost bat dira. Eta joan den urtean bezala haiekin batera Araba, Burlata eta Iruñeko txistulariak ere izanen dira. 20 bat guztira, txistuen bi ahots ea silbotearekin banatuta. Baina ez da dena txistua izanen. Txistulari alardeetan egiten den moduan, txistuak bere protagonismoa beste instrumentu batzuekin partekatuko du. Hala, Josu Aiestaran, Konstan Gonzalez, Asier Palacios, Sergio Gastaminza eta Jesus Irisarrik osatutako metal boskotea aldamenen izanen dute (bi tronpeta, tronboia, bombardino eta tuba). Javier del Rio baxuarekin ariko da. Kantuan, berriz, Itziar eta Erkuden Flo-



res ahizpak. Guztien doinura dantzaz ariko dira Etorkizuna dantza taldeko lauzpabost dantzari.

## Obra mustu

Egitaraua osatzerakoan joan den urtean arrakasta izan zuen formularen alde egin dute du atzera ere Burundar Txistulariak: Erdi Arotik gaur egunera arteko piezak jasotzen dituen programa presta-

tu dute biharko. Musikaren historian barrena egindako errepasso azkar horretan txistua swing edota ska doinuak jotzen entzuteko aukera izanenda. Ez hori bakarrik. Burundar Txistulariak taldekokide Carlos Sanchezen *Burundarrak* kalejira ere mustuko dute. “Pieza mugitua, entzun erraza”, Urizarrek aurreratu digunez.

Txistulariak & friends, eta lagu-

nak, izenburua eman diote kontzertuari. Urizarrek esanetan: “musikariak lagunak gara eta ongi pasatzera joan den publiko ere laguna da. Horregatik, friends hori”. Azken urtean lagunak nor bere alde egon dira entsetzen. Igandean guztiak elkarrekin aurreneko kontzertua egin zuten eta larunbatean bertan azken doikuntzak egingen dituzte.

## Etxarri Aranazko Abesbatza Ejean txapeldun



**Laugarrenez irabazi du Zaragozako koruen lehiaketa**

**E**jea de los Caballerosek XLIV. abesbatzen lehiaketa irabazita, lau hilabeteko lan gogorraren fruitua jaso zuen igande arratsaldean Etxarri Aranazko Abesbatzak. Horrek “ilusioz bete du abesbatza”. Lehen sariarekin batera (3.000 euro) Etxarri Aranazko Abesbatzak Kantu Koraleko Sari Nagusi Nazionalen Ejea ordezkatzeko txartela lortu du. Lehiaketa hori aurten jokatu da, zehazteko dagoen hiri batean.

Alicia Armendariz Murillok zuzentzen duen abesbatza helduen mailan Granada, Madril eta Durangoko beste hirurekin neurtu zen. Launa obra abestu zituzten. Haien artean guztiek Sergio Jimenez Lacimaren *Te veo, Ejea* kantatu behar izan zuten. Etxarriarrek interpretatu zuten bigarren kantua Jose Lerak eta Javier Bustok moldatutako *S'ha feito de nuey* aragoar kantaren moldaketa izan zen. Aita Donostiaren Aran lore eta Thomas Jennefeltten *Villarsa Sarialdi* kantuekin osatu zuten euren parte hartzea etxarriarrek.

## Lau sakandar Artea Oinez 2015 erakusketan

**I**ruñeko Gotorlekuko Ganbaran ikusgai dago Artea Oinez 2015 erakusketa. Nafarroa Oinez baitan antolatutako erakusketa ostiralean zabaldu zen eta maiatzaren 3ra arte izanen da ikusgai. 59 artisten lanek osatzen dute erakusketa. Haien artean lau sakandar daude. Jose Ramon Andak *Ilargi zeharkatua* urrutako brontzez egindako eskultura (2002-2009) du ikusgai. Mikel Okiñenak *Eskutitza*, beltzan patinatutako brontzezko eskultura (2008). Txuspo Poyok, berriz, *Zuhaitz etxearen eraikuntza argazkia* (2008) eman du erakusketarako. Azkenik, Dora Salazarren *Menina* kobrezko harizko eskultura (2001) dago ere. Iruñea eta gero erakusketa Elizondoko Arizkunean izanen da ikusgai, maiatzaren 6tik 21era.



## Liburu Astea Altsasun



**A**stehenean Manolita Thundersen (Amal taldea) Lehen Hezkuntzako haurrei zuzendutako poesia tailerra eskainiko du. Haurrek hitzekin jolastu eta eskulanak egingen dituzte 17:30etik aurrera liburutegian. Aurretik izena eman beharra dago. Bi egun geroago, asteazkenean, Castillo Suarezek haur literaturako bere azken lana aurkeztuko du: *Agur, Agur!* Idazleak aldamenen Morrots ilustratzailea izanen du aurkezpenean, 19:00etan hasita Iortia kultur gunean.

Heldu den ostegunean liburua aurkeztuko duena jatorri altsasua-

rra duen Fermin Goñi de Miguel da. 19:00etatik aurrera Iortia kultur gunean *Todo llevará su nombre* liburuaz hizketatuko da egilea. Nobela hunkigarri horretan Goñik Simon Bolivar libertadorearen azken bi asten berri ematen du. Liburuaren asteak ostiralean hurrendako ipuinen unearekin izanen du segida, ohi bezala, 19:00etan Iortia kultur gunean.

Egitaraua Intxostiapunta gazte gunean despidituko da, komikia bihurtuz jarduerarekin. Gazteek komiki bateko biñeta askeak irakurriko dituzte eta pertsonaiak antzeztu beharko dituzte.

## Album ilustratu bat sortzeko tailerra

Tallergileak: Yolanda Arrieta eta Aitziber Alonso


Apirilak 24, ostirala. 18:00etatik 20:00etara Ziordiko liburutegia

• 6-10 urte bitarteko haurrendako (LHT-4)

• Izen-ematea Ziordiko liburutegian (hilaren 17ra arte)  
(948 468 970 [ziordialib@cederna.es](mailto:ziordialib@cederna.es))

Antolatzailea: **Mank**  
gokana

Laguntzailea: **ZIORDIKO LIBURUTEGIA**





## G

asteko >> : eguraldia

ostirala	larunbata	igandea	astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna
euria: 76%	euria: 78%	euria: 89%	euria: 15%	euria: 15%	euria: 48%	euria: 37%
Min: 8 Max: 15	Min: 7 Max: 15	Min: 7 Max: 12	Min: 5 Max: 16	Min: 5 Max: 16	Min: 7 Max: 15	Min: 8 Max: 14

: temperatura >>

	Max. °C	Min. °C	euria l/m <sup>2</sup>
Irurtzun	27.5	3.5	2.1
Etxarri A.	25.3	1.6	2.9
Altsasu	24	3	4.7
Aralar	17.5	2.8	3.8
Urbasa	20.7	-0.2	3.3

: ilargiaren aldia >>

ilberri	ilgora	ilbete	ilbehera
18	26	4	11

**EGOKI**  
VENTANAS PVC LEIHOAK  
www.ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com

Acrylcolor  
SISTEMA  
BERRIA

KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE

**Apiribileko bazkide zozketa**

**APIRIBILEKO SARIAK:**

1. SARIA: Ekainberri museorako 2 sarrera, Gaztezulo aldizkariaren 3 hilabeteko harpidetza, Lacturale lotea, Magna Xotarako sarrerak, Artazako kanpinerako deskontu balea eta Irrien lagunak aldizkaria.

2., 3. ETA 4. SARIA: Gaztezulo aldizkariaren 3 hilabeteko harpidetza, Lacturale lotea, Magna Xotarako sarrerak, Artazako kanpinerako deskontu balea eta Irrien lagunak aldizkaria.

>> 11  
galdera

**Beñat Goikoetxea**

Sakana Berdea kanabis kontsumitzaileen klubeko presidentea

Testua: Eñaut Agirrebengoa Apaolaza



Bizitza loratzen

MAIATZEAN,  
loregintza gehigarria

Publizitatea hemen:  
948 564 275 · publi@guaixe.net · publizitatea@guaixe.net

**1.- Zer da kanabis kontsumitzaileen klub bat?**  
Pertsona kontsumitzaileek kudeaturiko leku bat da, etekin ekonomikoa lortzeko helbururik ez duena. Landaketa kolektibo baten bidez hornitzen da, eta egitura demokratiko eta autogestionatu bat dauka. Kanabisa arrazoi terapeutikoengatik erretzen duten pertsonen aparte, elkarte hauetara kalamua atsegin soilagatik erretzen dutenak ere sar daitezke.

**2.- Izena edozeinek eman dezake?**  
Ez. Etorri nahi duenak gutxienez 21 urte eta klubaren barruan bi abalemaile izan beharko ditu. Zirkulua itxia da, klubaren barruko guztiak ezagunak baikara. Legeak zehazten du gurea bezalako klub batek itxia izan behar duela.

**3.- Zenbat ordaindu behar da bazkide izateko?**  
Sozioak urtean 40 euroko kuota ordaintzen du, bertako gastuei aurre egiteko: alokairua, argia, ura.... Horretaz aparte, bazkideari aholkularitza legala ematen zaio. Klubak abokatu propioa dauka. Bestalde, sozio terapeutikoen kasua aipatu behar da. Hauek ez dute kuota zertan ordaindu behar, eta kalamua kostu preziora ateratzen zaie.

**4.- Zer dio zuen barne araudiak?**  
Klubeko sumistroa ezin diozu hirugarren pertsona bati saldu, hau da, hemengo kontsumoa norberarena, pribatua da. Landaketa egin baino lehen kide bakoitzari urtean zenbat kontsumituko duen galdetzen diogu, eta ondoren peritu agronomo bat deitzen dugu, landaketaren inguruan aholka gaitzan. Ondoren, landaketa kolekti-

boa egin eta dena asoziazioaren izenean jartzen dugu.

**5.- Zein da gehienez kontsumitu daitekeen kantitatea?**  
Suministroari dagokionez, eguneko 3 gramo dagozkie bazkide bakoitzari. Asteko 21 gramo kontsumitu daitezke. Dena den, orokorrean eguneko batzabestekoa ez da gramo erdira iristen.

**6.- Nola kontrolatzen duzue bazkide bakoitzaren kontsumoa?**  
Kontuak ordenagailuan daramatzagu eta ordenagailuko programa batek jakinaren gainean jartzen gaitu. Xehetasun guztiak apuntatzen saiatzen gara, erregistroa ahalik eta zehatzena izan dadin. Erregistroaren bitartez bazkide bakoitzak bere kontsumo ohiturak islatuta ikusten ditu. Gure helburua klubeko kideek kontsumo arduratsu bat egitea da.

**7.- Zenbat bazkide dituzue?**  
Soilik bi hilabete daramatzagu irekita. 200 bazkide gara eta oso pozik gaude. Ez ditugu gehiago hartuko, elkartearen kudeaketa zailduko lukeelako. Hemendik aurrera sozio terapeutikoen eskaerak onartuko ditugu bakarrik.

**8.- Sakanan horrelako elkarte bat dagoen lehenengo aldia da. Nola otu zitzaizuen zabaltea?**  
Esparru honetan hutsune legal handi bat zegoela ikusten genuen. Landare bat jartzen baduzu beti ibili behar zara ezkutuan eta belduzuz. Horrela, estatutu batzuk egin eta elkarte bat sortzea erabaki genuen, legalitatearen barruan jardun ahal izateko. Dena den, nahiz eta legearen eskakizun

guztiak bete, beti daukazu arriskua polizia landaketa daukatzun tokira joan, landareak inkautatu eta epailearen aurrean deklaratzera joan behar izateko.

**9.- Kalamu elkarteek inguruko bizilagunen haserrea piztu ohi dute. Zuei ere gertatu zaizue?**  
Ez, momentuz ez. Hala ere, jendeak kalamuarekiko aurreiritzi gehiegi dituela deritzot. Substantzia honen inguruan desinformazioa hedatu egi dago. Jendeari erakutsi behar zaio ez garelako muntroak, ez dugula ezer txarrik egiten. Norbait tabernara kafe eta kopa bat edatera lasai asko joaten den bezala, kalamu piska bat erretzea ere normaltasunez ikusia egon beharko litzateke.

**10.- Nolako da egunerokotasuna Sakana Berdea klubean?**  
Bi sofa gune ditugu, bata telebistarekin eta bestea liburutegi txiki batekin. Hitzaldiren bat edo beste ematea ere espero dugu, eta aktibitatea ere sustatu nahiko genuke, mendi martxen, txangoen zein bestelako bidaien bitartez. Sakana Berdea elkarte dinamiko bat izatea nahi dugu.

**11.- Kanabis klubek kontsumo ilegala gutxiagotzen lagundu dezakete?**  
Nik behintzat hala uste dut. Hemengo kalamuak merkatu beltzekoak baino kalitate hobea dauka eta gure prezioak merkeagoak dira. Gainera, kanabisa modu ilegalean lortu eta ondoren kontsumitzeak arriskuak dakartza. Elkarte bateko kide izanda, ordea, arriskuak askoz ere txikiagoak dira.  
Osorik: www.guaixe.eus